

# Juan Garmendia Larrañaga

## Neguko festak

Javier Juanes-ek irudiztatua



16



Juan Garmendia Larrañaga Bilduma

**1993.** Fiestas de invierno / Juan Garmendia Larrañaga. – Donostia : Diputación Foral de Gipuzkoa, Dpto. Cultura y Turismo, 1993

**1993.** Neguko festak / Juan Garmendia Larrañaga. – 1ª ed. – Donostia : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Turismo Departamentua, 1993

**1998.** Neguko festak / Juan Garmendia Larrañaga. – 2ª ed. – Donostia : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Turismo Departamentua, 1998. – Euskera, castellano, francés e inglés

**1998.** Fiestas de invierno = Neguko festak / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *Fiestas y Juegos*. – (Euskal Herria. Etnografía. Historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obra Completa ; 4). – Donostia : Haranburu Editor, 1998. – Castellano, euskera

---

## 2007

Neguko festak / Juan Garmendia Larrañaga ; azala eta argazkiak Javier Juanes. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. – 65 or. : ir. – (Juan Garmendia Larrañaga Bilduma ; 16). – ISBN : 978-84-8419-082-0

---

### **Azala eta argazkiak**

Javier Juanes

Kutxa Fototeka Argazki Artxiboa. Gipuzkoa Donostia Kutxa

P. 46, 47, 48



---

### **EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES**

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.  
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia - Tel. 943 31 08 55 - Fax 943 21 39 56  
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: [ei-sev@eusko-ikaskuntza.org](mailto:ei-sev@eusko-ikaskuntza.org)

Fotokonposaketa: Michelena artes gráficas. Astigarraga  
Digitalizazioa eta argitalpen elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin

## Neguko festak

Juan Garmendia Larrañaga

### Orria

---

Kredituak	
Santu Guztien Eguna .....	3
Amasako oilasko jokoa .....	4
Getariko Askizu auzoan oilasko jokoa .....	6
Eibarren gaztainerre eguna .....	6
Aiako Altzola auzoan San Roman jaia .....	6
Ormaiztegin, San Andres jaia .....	9
San Nikolas .....	9
Santa Luzia .....	9
Santo Tomas .....	11
Eguberri-Urte Zahar-Urte Berri-Errege jaia .....	12
Lazkaoko Astotxo eguna .....	27
San Anton .....	28
Nuarben San Julian eguna, otargileen jaia .....	30
San Sebastian .....	31
Otsailaren aurrena, Santa Brigidaren eguna .....	32
Kandelario .....	32
Pertz konpontzaileak .....	33
San Blas .....	34
Santa Ageda .....	35
Iñauteria .....	40
Aizarnazabalen, Amabirjina Martxoko .....	63

Festak berarekin dakar eguneroko bizimodu arruntaren etena. Badakigu eguneroko eten hau ez dela beti festaren ospakizuna, hor dauzkagu esate baterako, heriotzak dakartzan ohiturak, batez ere nekazari munduan; baina nolahi ere, festetan eguneroko bizimodua aldatu egiten da.

Herri bat ezagutzeko, eta biztanleek osatzen dute herria, hurbil gaitezen bere festetara. Han, begiratzeko asmatzen badugu, azalduko zaigu argi eta garbi herria nolakoa den, nola mugitzen den bere kezketan ekintza sozio/ekonomikoen barnean. Hemen azpimarratuko dut, gizona,aldi handi baten barnean behinik behin, bere izaeran sortutako instituzioetan bizitu dela. Elkartaren barnean, hau nabaritzen da langintzan, heriotzak berarekin dakartzan ohituretan, ohar gaitezen *auzoa eta auzokoaren* betebeharra, eta nola ez, festetan, adibidez *puska-biltzeko* ibileran, dantza taldeetan, lauterietako pantomimetan, eta abar luzean.

*Neguko festak* izenburua darama nire lanak, baina negua zerbait luzatu edo zabaldu egingo dugu. Azaroa ez da negua; baina neguko ospakizutan barnean sartzea egoki iruditu zaigu, *udazkeneko festak* entzutea ez baita oso gauza arrunta, eta beste aldetik, udazkena neguko sarreraren giltza baitugu. Horrela, bada, gure aurreneko urratsak azarotik abiatuaz izan dira. Baina adieraziko dut nire bilduma hau ez dela inondik ere neguko festen erakusle, *gida* edo antzeko zerbait, baizik eta ospakizun batzuren ikuspegi, etnografi alorretik egina. Errepikatuko dut, bada, nire lana ez dela, inola ere, festa ospakizunen gida edo antzeko zerbait. Adieraziko dut, eta hau argi eta garbi utzi nahi dut, lan hau nire ikerketan oinarritu eta mugatzen dela.

Azaroa aipatu dugunez, zer gauza egokiagorik bere aurreneko egunetik, Santu Guztien egunetik abiatzea baino

## **SANTU GUZTIEN EGUNA**

Santu Guztien arratsaldean, Aiako Altzola auzoan gazte bilera.

Santu Guzti egunaren arratsaldean Aiako Altzola auzoko mutil gazteak beren biltokian elkartzen ziren, Mutil Ardoa izena zeraman elkartea hain zuzen ere, aintzinean *Etxeerre* izeneko baserrian, eta geroago *Moja-etxe*ko tabernan.

*Mutil Ardo* batzar honetan aukeratzen zituzten giltzero izeneko biak, urtean zehar elkarteko arduradun izango zirenak. Honetarako kartak bi aldiz



banatzen zituzten, eta *bateko urria* egokitzen zitzaiona *giltzero* izendatzen zuten, urtebeterako esan bezala. Baina, gehienetan gazteek borondatez onarzen zuten *giltzero* lana, eta ez zen izaten kartak banatu beharrik.

### **AMASAKO OILASKO JOKOA**

Kronologiaren barnean heldu gara azaroaren 11ra. Azaroaren 11, San Martin eguna, Amasako jaiak. Hurikka polit honetan, eliz parrokia Santu beraren izenekoa da. Amasako festakizun berezia oilasko jokua izaten da.

Aintzinan, nire berriemailearen gazte garaian, San Martin hirugarrenean egiten zuten joku hau; azken urte hauetan, festen barnean, ez dute egun jakirik; baina, hori bai, behin ere ez San Martin egunean.

San Martin hirugarrenean edo oilasko jokua egiten den egunean, herriko bi gazte talde goizeko seiretan *oilasko biltzea* izeneko eskean ateratzen dira, tabernaren batean kafea hartu ondoren. Buruan txapela daramatela, gazte hauek brusa erakusten dute, abarkak jantziaz. Talde bat filarmonika txiki batekin, trikitixan erabiltzen den antzekoa, eta bestea txistulariak jotako doinua lagun ibiltzen dira, bakoitzak bailara jakinean eskatuz.

Talde bakoitzak haga eramaten du, eta bertatik zintzilikatzen dituzte oilaskoak, hanketatik lotuta. Baserri eta kale-etxe batzutan diruarekin erantzuten diote eskeari, eta beste baserri batzutan hegaztiekin.

Eskean dabilzan gazteen etxeetan oilasko batekin ematen diote ongietorria, eta berdin arratsaldeko dantzasokan atera behar duten neska gazteen bizilekuetan ere.

Baserri guztietako ate aurrean mutilek dantzatzen zuten, eta dantza horretan etxeko emakumezkoa partaide izaten zen.

Oilaskoa hartzerakoan suziria lehergailua botatzen zuten, oilanda edo dirua ematen ziotenean hiru tiroko suziriarekin adierazten zuten. Oilaskorik ederrena Billabonako ospitalera opari bezala eramateko ohitura izan dela ere ez dugu ahaztuta utziko.

Hamabi t'erdia inguruan bi taldeak beren diru eta oilaskoekin Amasako plazan elkartzen dira, berehala Billabonara jaitsiaz. Hemen zurezko gurutzera pasatzen dituzte oilaskoak, eta huri honetan kalez-kale eskean jarraitzen dute, dirua bilduaz. Ondoren, Aranzabi jatetxean oilaskoak utzi eta gazte bakoitza bere etxera bazkaltzera.

Arratsaldeko laurak inguruan, berriro Amasako jatetxera, eta hemen denak bildu ondoren, kafea hartu eta gurutzean dauden oilaskoekin, txistu eta filarmonikak bidea alaituz, Amasako plazara. Bertan, plazako lurrean kaja jarri, bere tapa zulatuta, eta *oilasko jokurako* hegazia lepoa zulotik irteten duela sartuta utzi.

Ondoren, txistulari eta danborrero baten doinuekin mugituaz, gazte batek begiak oihalaz estalita eta eskuetan ezpata daramala, oilaskoaren lepoa moztetari ekiten dio. Honela, kolpe batean ez bada bestean, gazte bakoitzak oilaskoen lepoa moztuko du. Oilaskoak saskian sartzen dituzte eta aipatu-tako jatetxera afaltzeko eraman.

*Oilasko jokuaren* ondoren, Amasako plazan dantza-soka ateratzen dute eta erromeriarekin jarraitzen du festak.

Gaueko beretziak inguruan afaltzera, hegazti barruez egindako tortila eta gazte bakoitzak bere oilaskoa janez. Afari honetan, eskean ibili direnak, Billa-bona-Amasako Alkatea eta agoazila biltzen dira.

Hala amaitu izan dira egun honetan Amasan egindako festak, orain dela berrogeita bosten bat urtera arte. Egun, zerbait aldatu badira ere, funtsezko oilasko biltzeak eta aipatutako jokoak jarraitzen dute<sup>1</sup>.

## **GETARIKO ASKIZU AUZOAN OILASKO JOKOA**

Amasako oilasko jokoaz mintzatu gara, eta orain esango dugu San Martin jaiak direla eta, Getariko auzo honetan ere eratu izan dutela oilasko jokoa, urteroko jarraipenik gabe<sup>2</sup>.

## **EIBARREN GAZTAINERRE EGUNA**

*Gaztainerre* jaia azaroaren 2an ospatzen den *Hildako Guztien* oroimenarekin lotuta dago. Elizako otoitzen ondorioa dugu *gaztain* erre jatea. Hildakoen alde lehen egiten ziren ondoren ondorengo otorduen antzekoa.

Horregatik, *gaztainerre* beti ospatu izan da aipatu Hildako Guztien Eguna-  
ren bederatziruena amaitu ondorengo astelehenean.

Orain dela urte batzu, emakume eta gizonezkoek norbere aldetik ospatzen zuten *gaztainerre*. Emakumezkoak inguruko baserrietara joaten ziren, eta bertan meriendatzen zuten, txorizo tortila eta *gaztain* erreak.

Gizonek, berriz, ohizko tabernetan elkartzen ziren, eta *gaztain-erre* aforian, *gaztainez* gain, marraskilo edo karakolak izaten zituzten.

Garai batetan, 1936ko gerra aurretik, *Astelena* pilotalekuan dantzaldia antolatzen zuten egun honetan.

Azken urteetan, galdu xamartua da *Gaztainerre* ospakizuna<sup>3</sup>.

## **AIAKO ALTZOLA AUZOAN SAN ROMAN JAIA**

San Roman eguna, azaroaren 18an, Aia herriko Altzola auzoko patroia. Aurretik, azaroren 18a baino egun batzu lehenago, *giltzero* izeneko gazteak –eta esana dugu hauek nola aukeratu eta zertziren– herriko alkatearekin biltzen ziren festak nola izango ziren erabakitzeko, eta festen iragarkia edo programa antolatzen zuten. Adieraziko dugu alkatearekin hartueman gaueko erromeriaren amaiera orduaren arabera mugatzen zela. Erabakia idatzi baten bidez adierazten zuen alkateak, *giltzeroek* beren *Mutil-Ardoa* izeneko elkartearen sarrerako atean ipintzen zuten, denen jakingarri.

---

1. Amasa: Julian Mendizabal Zendoia, 61 urte. Goiko Etxeazpi baserria. 1992ko irailak 13.

2. Getaria: Iñaki Badiola Arrizabalaga, 62 urte. Apaiz etxea. 1992ko urriak 16.

3. Eibar: Pedro Zelaia historialariak leialki emandako berriak. 1992ko azaroak 4.



Aspaldi xamar igarotako urteetan, San Roman bezpera ilunabarrean, *Mutil-Ardoa* elkartean *giltzero* bezala aurkitzen ziren bi gazteek zahagi pare bat ardo erosten zuten Aiako herrian, eta gurdiaz baliatuta karreatzen zituzten beren auzora, gurdiairen karraxi berezia bizituaz eta suzirien etengabeko soinua entzunez, bai beraiek eta baita ingurukoek ere.

Zahagiak mutil elkartera, *Etxeerre* baserrira, eramaten zituzten, eta hemen, ardo trago batzu eginez festaurreak jarraitu egiten zuen. Zahagi-ardoa gordetzeko gelaren giltzak *giltzero* izeneko gazteek gordetzen zituzten. Gaur egun, *Mutil-Ardo* honen ohiturak bizirik jarraitzen du, nahiz eta ardoa garrafoietan tabernara ekarri. Baina *Mutil-Ardoa* elkartea eta *giltzeroak* ahaztu xamartuak aurkitzen dira.

San Roman egunean, goizeko zazpiretan ematen zen aurreneko meza, eta hamarretan Meza Nagusia. Ordurako Aiako danbolinteroak iristen ziren, eta eliz atari inguruak alaituz, gazteria dantza librean jarri.

Mezerdi garaian danbolinteroek egiten zuten beren saiotxoak, eta Meza Nagusi honetan Altzola, Laurgain eta Urdanetako maiordomoak ohizko beren diru eskea egiten zuten. Maiordomo bakoitzak biltzen zuen dirua bere eliz parrokiarako izaten zen. Honela nabarmen jartzen zen auzo hauek elkarren artean zuten elkartasuna, gaur auzo batean eta bihar bestean eskea errepi-katuz.

Altzolako Meza Nagusi honetara Aiako alkatea joaten zen, eta meza ondoren, eguraldiak laguntzen bazun, prozesioa ateratzen zen elizbiran edo



eliz atarian ibiliaz. Ondoren, eta orain dela berrogeita zortziren bat urtera arte, aureskua plazan dantzatzen zen.

Arratsaldean, erromeriak festa giroa jartzen zuen plazan *Etxeerre* edo *Apaz Etxea* izenekoaren mandioan, lanabesak eta abar gordetzen zituzten lekuan.

Festa erdian gazteria biltzen zen giltzeroen deiari erantzun ona emanez. Bilera honetan diru ordainketa egiten zuten, gerorako utzi gabe, festaren gastuei erantzuteko behar zuten diruarena.

Gero, dantzan jarraitzen zuten gaueko bederatziak arte. Hau honela orain dela hirurogeita zortzi urtera arte.

Biharamonean, *mutilen meza* izaten zen, goizeko hamarretan. Meza honetan, *giltzero* batek eliz parrokiaren alde eskatzen zuen.

Arratsalde eta gaueko erromeriak osatzen zuen eta baita amaiera eman ere eguneko festari.

Altzolako auzoan ospatu izan da San Roman hirugarrena. Goizean, gazteak *oilasko biltzia* izeneko eskera ateratzen ziren, eskusoinu doinuaz ibilera alaituz. Gazte hauek txapelaz estaltzen zuten burua; eguneroko galtzak, brusa eta, apaingarri, sedazko zapia lepoan. Oinetan azmantar zuriak eta abarkak.

Bi gaztek zurezko sardaia zeramaten bizkarrean eta bertan zintzilikatzen zituzten hanketatik ematen zizkioten oilasko eta oiloak. Honela egiten zuten eskea baserriz-baserri, ate-deia egin ondoren dantza pare batekin agurtuaz. Urte barruan hildakoaren etxe atarian, txapela kendu ondoren, soinua isiltasun bihurtzen zen, dantza errezo bihurtzen zen, Aitagure eta Salbe batekin.

San Roman hirugarren gauean gazteria –neska-mutilak– *Etxeerre* baserrian biltzen zen, *oilasko jatea* izeneko afarian. Gero, eskusoinu edo soinutxikiaz alaitutako dantzaldiak ematen zion amaiera jaialdiari.

Soinujoleen ordainketa Mutil-Ardoa elkartearen gain joaten zen, baita festa honetan eta hurrengo igandean edo San Roman Domekan lekuko ziren guztiei ardoa ematea ere.

Azken urte hauetan, orain dela hemezortziren bat urte arte, *oilasko jatea* tabernan egiten zuten; egun, galdurik aurkitzen da ohitura hau<sup>4</sup>.

---

4. Altzola (Gipuzkoako Aiako auzoa) Antonio Argote Agirre, 84 urte; Juliana Argote Agirre, 77 urte; Silberio Uranga Argote, 52 urte, eta Jose Antonio Uranga Artola, 85 urte. Arriarte baserria. 1987ko urria, azaroa eta abendua.

## ORMAIZTEGIN, SAN ANDRES JAIA

Festa giroaren barnean azaroa agurtuko dugu. San Andres, azaroaren 30ean, Ormaiztegiko Patroia, herriko festak. Egun honetan, Segurako tanbolinteroek alaitzen zuten goizetik herria. Meza Nagusiaren ondoren, bertsolarien saioak eta aurreku dantzak festagirotan bizi-bizirik jartzen zuten plaza. Ondoren, neska-mutil gazteak eliz atarian bilduta, mutilek erroskila eta pipe-ropil bana eskeiniko zieten neskei. Erroskila galirinez egina eta piperropila, luzeagoa, artirinez egindakoa.

Eguerdia iristean, bazkaltzeko oilo salda, garbantzua, aza eta odolkia, haragi egosia, arrozesa, intxaur eta mizpirak, ardoa, sagardoa, kafea eta pattarra izaten zituzten.

Arratsaldean, festakizun berezia izan ere, eta aintzineko kutsua berarekin zeramana, koskol apustua antolatuko zuten *Elgoeneko* eta *Barreneko* auzoen ordezkarien artean, honetarako erreferentzia eliz parrokia hartuaz, herriaren behe aldekoak eta goi aldekoak, noski<sup>5</sup>.

## SAN NIKOLAS

Abenduaren 6a, San Nikolas eguna, han-hemenka lurralde askotan ospatu izan zen, edo ospatzen den, jaia; gure artean, adibidez, Seguran, eta abar. Gehienbat ume festa bezala ezagutzen dugu San Nikolas hau. Ohitura honetan agertzen da argi eta garbi ordezeko nortasuna. Nik, jarreraian, Billabonako herrian jakiterik izan nituen berriak emango dizkizuet.

Herri honetako neska-mutil kozkorak eskolako atsedendian eta bazkaltzeko garaian ibiltzen ziren eskean atez-ate. Batzutan bakarka, eta gehienetan, binaka eta hirunaka. Behin arratsaldez gero, ez zuten eskatzen, eta eskatzera ausartzen baziren, erantzun hau jasoko zuten: *Bukatu da San Nikolas*.



---

5. Ormaiztegi: Kasilde Arzelus Loiola; Frantzisko Elorza Aierbe; Pio Galarraga Goikoetxea; Millan Irizar Bengoetxea; Jose Domingo Iurrita Jauregi; Baltasar Manzisidor Goia eta Eulogia Otegi Murua. 1990ko urtarilaren 14.

Mutil batzuren jazkera obispo edo gotzaia gogoratu nahian azaltzen zen. Kartoizko mitra antzekoa eramanez, kolore ezberdinezko paperezko zerrendak apaintzen zuen hau.

San Nikolasen eske horren erantzuna dirua, fruta edo goxoki batzurekin egiten zen, agurra atez-ate abesti ezagun eta zabaldu xamar honekin emanez:

San Nicolás coronado  
Obispo fue muy honrado  
Ale, ale, alegría  
Todo el mundo salvaría.  
Aquí estamos tres  
Cantamos dos  
Una limosnita  
Por amor de Dios  
Angeles somos  
Del cielo bajamos  
Para Jesucristo  
Dinero pedimos.

Ondoren, urtats edo aginaldoaren zain zeudela, eta batzutan itxaropen haundirik gabe, abestitz kuttun hau abesteari ekiten zioten:

San Nikolas txikia  
Zure ganbaran hazia  
Zure ganbaran zer dago?  
Andre Juana Maria.

Orain dela hogeiren bat urte arte, Billabonan ospatu zen San Nikolas eguneko eskea; baina euskarazko abestitza lehenago ahaztua zen<sup>6</sup>.

Segura aipatu dugunez gero, esango dugu San Nikolas eskearen azken agurra, hiri honetako Ramona Lezetaren bidez ezagutzen dudana, honela izaten omen zen: *Bota, bota*, (janariak) *Jangoikok emango do ta*<sup>7</sup>.

Ikusi dugun ume-gotzaiaren egozketa edo suplantatzea, aipatu dugun ordezko nortasuna, nortasunaren aldaketa, festa ospakizunetan askotan gertatzen den gauza da. Oroit dezagun gauza baten irudia, gauza beraren berdina dela. Hau gogorapen garrantzitsua dugu, ez ahaztekoa.

## SANTA LUZIA

Tolosan izan genuen jolas/festa ohitura, nik ezagutu ez dudana; baina, badira oraindik bat baino gehiago jostaldi hau ikusi eta partaide izan zirenak, jolas/festa bizi izan zutenak.

---

6. Billabona: Jose Lino Etxeberria Zaldúa, 63 urte. 1985eko maiatzak 31.

7. Segura: Ramona Lezeta Legorburu, 85 urte. Sakristauenea etxea. 1992ko urriak 13.

Abenduak hamairu, Santa Luzia eguna, bezperan festa giroan ongietorria emateko eguna. Bezperako arratsaldean, ilunabarrean hobeki esateko, mutil kozkorrek beren eskola saioa amaitu ondoren eskura etortzen zitzaizkien metalezko tresna zahar baztertuak eskuratzen zituzten: eltzeak, pertzak, zar-taginak, etab., eta mutiko guztiak, tartean hazixeagoak ere izaten zirelarik, elkaturik kalean zehar gora eta behera ibiltzen ziren, zalaparta bizian, ontzi soinu zaratsua atereaz, behin eta berriz, eta atsedenek hartu gabe, hau ohikatuz: *Santa lubia, lubia, le, aguazilaren beldurrik gabe*.

Festa ohitura honek berarekin ekartzen zituen neurri gabeko gertakizunak. Honela, arratsalde ilun eta zalapartatsu haietako batean, udaltzain edo aguazilari bizarra erre omen zioten, eta ondoren, ohitura hau baztertu.

Hirurogeita hamarren bat urte izango dira abenduko ilunabarrean Tolosako kaleetan *Santa lubia, lubia, le, aguazilaren beldurrik gabe* entzun ez dela.

## **SANTO TOMAS**

Abenduaren hogeita batean, Santo Tomas egunak badu bere festa kutsu berezia, Donostian adibidez.

Santo Tomas feriak, eta honen inguruan egun antolatzen diren jaiak, maizter-nagusien arteko ohitura gogoratzen digu. Urteko etxe-saria hegatziez ere ordaindu beharra, aintzinako ohitura lege bihurtutakoari jarraituz. Eta ez nekazari edo baserri giroan bakarrik, kale-etxe sarietan ere aurkitzen dugu xehetasun hau, batzutan behintzat.



## EGUBERRI - URTE ZAHAR - URTE BERRI-ERREGE JAIA

Ez dira gutxi Gabon inguruan ospatzen diren jaiak, bere ohitura bereziekin.

Bere ospakizun garrantzitsuetan, gizonak berarekin izan du sua.

Udako solstizioan pizten den suak, ohitura orokor bati erantzuten dio.

lauteriak sua ez du urrun, gure lurraldean su inguruan igarotzen ditugu Gabon jaiak, eta suarekin eman izan zaio azken agurra urteari. Uste dut burutapen edo pentsakera hauek baliagarriak direla gure ekintza honetarako.

Aintzinan, neguko solstizioaren ohorez jai haundiak egiten ziren, *eguzkiaren jaiotza* baitzen.

Kristau-aroan, 274garen urtean, Aureliano erromatarren agintariak, abenduaren 25ean jarri zuen *Eguzkiaren jaiotza*, eta laugarren mendez gero, Elizak Jesusen jaiotza ospatzen du, abenduaren 25ean.

Eguberri jaiak ez dira osoan, batera, ikusi behar, bere zatiketa bereziaren barnean baizik. Baina aurrera jarraitu baino lehen, oroit dezagun Gabonak berarekin ekarri izan duen ohitura. Honetarako, zerbait irtengo gara gure probintziatik.

Eguberri inguruko egunetan, behartsuak eskean ibiltzeko ohitura izan da herri batzutan.

Nafarroako Belaskoain herrian, eta hau adibide antzera, euskararen kutsua duen hitza jasotzeagatik gure hizkuntza galdua duen lurraldean, Belaskoainen esan dut, Eguberria baina astebete aurretik herriko behartsuak inguruko herrietan, bakarti, eskean ibiltzen ziren, eta eske honi Koskari deitzen zioten<sup>8</sup>.



---

8. Belaskoain: Anjel Peciña Azanza, 67 urte. 1985eko azaroak 17.



Amorebieta-Zornotzako *Katia* auzoan bizi den nire berriemailea gogorazten da Muxikako baserritar bat abendue batzen nola ibiltzen zen.

Gabon egunaren ilunabarrean hasiera emanda, bere ohiturazko ekintza betetzeko, eta hau inoren laguntzarik gabe, egiten zuen, hamabosten bat egun behar izaten zituen. Txilina makil haundiari lotuta eramanez, boltsie soka edo uhala soin-ugelean zuela ibiltzen zen. Jana edo dirua ematen zioten, aterik-ate hau abestean:

Abendu santu onetan  
Kristoren jaiotzia  
Kontentuaren aldez  
Guztiak poz gaiten.  
Maria, Jesus  
Jesus, Maria, Jose<sup>9</sup>.

Harira itzulita, ospakizun hauen sarrera Gabon, Eguberri bezpera edo Olentzaro egunean jarriko dugu.

*Gomentzago, Olantzaro, Olentzaro, Onentzaro, Onontzaro, Orantzaro, Orentzago, Orentzaro*, eta abarri buruz asko idatzi da. Adibidez, Azkue, Pio Baroja, Aita Eusebio Etxalar, Jose Maria Iribarren, Aita Donostia, Jose Migel Barandiaran, Manuel Lekuona, Julio Caro Baroja, Satrustegi, eta abar luzea; neronek ere badut zerbait idatzia (Ikus *El Diario Vasco*, 1967ko abenduaren 22

---

9. Amorebieta-Zornotza (*Katia* izenez ezaguna den auzoan): Simon Sarrionaindia Larrea, 72 urte. Etxebarri etxea. 1988ko irailak 9.

eta 24a), aintzinako Lope de Isasti ahaztu gabe. Eta nahikoa dugu aipatu-tako hauen lanak eta beste batzurenak irakurtzea, *Olentzaroren* esannahia eta sortzea iritzi ezberdin pean mugitzen direla jakiteko. Eta puntu hau adierazten digu Orixek *Euskaldunak* bere poeman:

Begigorri ba dator aiton Olentzaro,  
urteak egun ainbat begi ta bat geigo.  
Gurdia aiñako sabel: aurpegi dena ago,  
nondik nora sortu zan jakin gabe nago.

Baina *Olentzarorekin* gauza bat argi dago: Olentzaro ez da izan, azken urteak arte, Euskalerrri guztiko irudia, gizonaren irudimenak iruditu duena, baizik eta gure Beterrikoa –Goierriin, gutxi–, Bidasoa ingurukoa, Gipuzkoako itsas ertzekoa eta euskal Nafarroa mendialdekkoa, batez ere.



Adibidez, azken urte hauetan Lekunberrin esan izan zen *Orantzaro umeei lepoa igitalarekin moztea etorriko zela*, baina berri zaharragoetan, hiri honetan ez da *Orantzaroren* arrastorik aurkitzen.

Honekin adierazi nahi dut, egun Euskalerrri guztira iristen bada ere, lehen ez zela *Olentzarorekin* berdin gertatzen.

Olentzaro su inguruan berotu zalea izan dugu, azkenaldi honetan kaletar xamarra bihurtu bazaigu ere.

1973. urtean Albizturko Odriozolaren ostatuko etxeoandreak esan zidan herriko *Olentzaro* tximinitik etxera sartzen zalea zela. Hau gerta ez zedin, eta umeen lasaitasunari begira, gau honetan, *Olentzaro* gauean, su haundi eta ketsua pizteari ekiten ziotela. Hartara urruntzen zuten *Olentzaro*.

Bedaioiko *Olentzaro* ezinbesteko behartsu eta apala zen, Tolosako auzo honetan jakitea izan nuenez. Labatzetik zintzilikatzen zen. Arpilerazko zaku zaharra su-gauean edo tximiniko kanpaiaren atzean jartzen zuten, besterik gabe. Kehaizeak geldiro zerbait mugituaz, umeentzat beldurgarri gertatzen zen.

Egun honetan, egun argitan, umeek abesten zuten: "*Olentzaro zahar, hik atorra zahar. Eguberri berri-berri, nik atorra berri*".

Bedaioiko baserri gehienetan hau izaten zuten *Olentzaro* eguneko afaria: Baratxuri-zopa, makailoa tomatearekin eta gaztain erreak, sagardoa eta ardoa, kafea eta pattar zuria. Orain dela berrogeita hamar urte inguru arte iraun du ohiturak.

Berastegin umeei esaten zieten *Olentzaro* etorriko zela tximinitik barrena, gauean oheratu nahi ez zutenei igitaiarekin lepoa moztera.

Hau egiaztatzeko entzuna diot *Borda Txuri* baserriko etxeoandreaki –Amada Etxeberria Matxinea– bere familiakoek gutxiena uste zutenean, tximinitik behera itaia bota izan zuela behin baino gehiagoetan. Honela beldurtu izan ditu, bere seme-alabak aurrena, eta bilobak geroago.

Elduainen, gaztainak erretzeko danbolin soinuarekin uxatzen zuten *Olentzaro* beste baserrira<sup>10</sup>.

Lizartzan, *Olantzarori* ongiatorria egiteko prest egoten ziren. *Olantzaro* tximinitik barrena etortzen zitzairen eta bere eserlekua gordetzen zioten, etxeoekin batera afaltzeko. Afaltzeko baratxuri-zopa eta makailoa izaten zuten beti.

Umeek, berriz, eskaileretan gora eta behera korrika agertzen zuten beren poza. Jolas honi anka jokue deitzen zioten<sup>11</sup>.

Sukalde inguruan garenez gero, gogoratuko dut beste aintzinako ohitura, benetan zahar kutsua duena, nire ustez.

Gau honetan pizten zen *Gabon-supilla*, *Olentzaro trunkoa*, *Orantzaro enborra*, *Onantzaro gaubeko baztarrekoak*, eta abar izeneko enborra.

Aiako Agerre baserriko etxejauna zen Manuel Maria Orbegozok esan zidan, herriko ohitura zabalduari jarraituz, Gabon ilunabarrean karraiatzen

---

10. Elduain: Maria Etxeberria Leitza, 76 urte. Estankoa. 1969ko azaroak 19.

11. Tolosa: Apolonia Gibelalde Sarasola, 74 urte. 1973ko martxoak 17.



zutela, behi pareak tirata, pago-burua edo pago-mozkorra etxeko sukaldera, eta hemen su ematen zioten arto-lokotxarekin.

Pago-buruaren gainean matxarda jarrita erretzen zituzten afaltzeko zeuzkaten bixigua eta gaztainak.

Afalondoren, pago-mozkorraren inguruan eserita, kafea eta pattar gorria eta zuria edanez, jarraitzen zuten Gabon giroa ospatzen. Behin ordu bat iritsiz gero, etxekoandreak sua itzaliko zuen.

Aipatu dugun Agerre baserriko etxejaunak berak esan zidan Iturriotz-eko bide-ostatuko sukaldera bi behiek karraiatu zutela pago arbola edo zuhaitz osoa. Urte haietan, Iturriotz-eko sukaldeak ez zuen tximinirik, keak teilatu zaharreko zirrikituetatik aldegiten zuen.

Zestoako *Txiri Boga* izeneko auzoan ere, Gabon ilunabarrean *Gabon-supilla* pizteko ohitura zuten, eta bere brasetan erretzen zituzten afaltzeko bixiguak.

Suaren arriskuari aldegitiko, oheratu aurretik *Gabon-supilla* sarrerako ate aurrera ateratzen zuten, hurrengo goizean berriz sukaldera sartuaz.

*Gabon-supill* honek, entzutea izan nuenez, Urte-Zahar eguna igaro arte irauten zuen.

Su bajua izkutatzeak berarekin ekarri zuen ohitura hau eta antzekoak izkutatzea azkartu izana<sup>12</sup>.

Gabon egunean eskean edo puska biltzen etxerik-etxe ibiltzeko ohitura, zaharra eta aldi berean ohitura bizia da. Soinuarekin edo gabe, abestuz gehienetan.

Ohitura bitxi modura, Arabako Ullibarri Haranean herrian egiten zen Gabon saria oroituko dugu. Saria, etxean egindako ogi harroa, soba edo *sopil* izeneko izaten zen.

Batzutan, ogia lukainka edo sagarrez betetzen zuten, eta labean erretzen utzi. Ohitura hau aspaldi galdu dugu<sup>13</sup>.

Errenteriako baserrietan abestu izan da:

Belengo portalian  
Estalpe batian  
Jesus jaio da umil  
Ganadu tartian.

---

12. Zestoa (Txiri Boga auzoa): Maria Zumeta Olaskoaga, 67 urte. Txiri-Boga Berri etxea. 1973ko abenduak 9.

13. Ullibarri Harana: Petra Beltran de Heredia Sagasti, 84 urte. 1980ko otsailak 20.

Astua eta idia  
Dauzka aldamenian  
Arnasaz berotzeko  
Oztutzen danian<sup>14</sup>.

Idiazabaleko Urtsuaran bailara bakartian, hau abesten zuten:

Zapata txuri paperez, ebiak jo ta baterez. Nagusi jauna, gu emen gatoz  
esperantza gorderik, eztegula ta iñun billatzen berori bainan oberik.

Agur, agur, jende noblea, berri on bat dakargu; atentzio on bat eduki beza  
inork aditu nai badu.

Adan da Ebak egin zutenean Paradisoan pekatu, gure munduko neka-  
dañuak argatik ziran gertatu.

Ordu artantxen Jesus guriak bereala zuen pentsatu, denborarekin era  
berrien bat beharko zala pentsatu<sup>15</sup>.

Gabon Eguna, Olentzaro Eguna edo Eguberri Bezpera gauean, Larraulko  
gazteak eskean ibiltzen ziren, baserriz-baserri.

Brusa beltza jantzita, beraiekin ezpainetako soinua eramaten zuten.  
Arrunki ematen zieten dirua, eta aterik-ate deia egitearekin, bat-batean,  
koplerruari abestitz hau entzuten zitzaion:

Jesus, Jesus esango degu  
Leendabiziko itzian.  
Jesus sartu dadilla  
Beroren eta gure etxian.

Ondoren, gazte taldeak abesten jarraitzen zuen:

Gaubeko amabiyak  
Jo duten orduan  
Gure Salbatzaillea  
Jaio da munduan<sup>16</sup>.

Gabon eta Urte Zahar gauean, Ataungo San Gregorio auzoko mutilek,  
ezpainetako soinuarekin eskean ibiltzen ziren, eta baserri eta kale-etxe  
gehienetan hiru puntatako opila, *oblata* izenez ezaguna, ematen zieten.

Gero, gauerdiko aldera, mutil hauek, hiru, lau edo bost, aurrez hitzeginda  
eta bilduta zeuden nesken etxera joaten ziren, eta oblatak janez, eta neskek  
eskaintzen zieten txokolate katilu bana hartzen zuten, eta ondoren kartetan

---

14. Erreterria (Zamalbide auzoa): Antonia Auzmendi Zuloaga, 73 urte. Lubeltza Berri base-  
rria. 1988ko martxoak 12.

15. Urtsuaran: Gregoria Mintegi eta Lorenza Ormazabal, Olea baserria. 1976ko martxoak 1.

16. Larraul: Norberta Amonariz Garmendia, 77 urte, eta Jeronimo Tejeria Treku, 82 urte.  
Larrola baserria. 1988ko irailak 25.

aritu, ordu txikiak arte. Festa-bilera honetan, ezpainetako soinuak jai izaten zuen, ohean zeudenen atsedinari begiratuz<sup>17</sup>.

Zumaian, Gabon edo *Gomentzago* goizean, *Niño Jesusen eskia* egiten da, goizeko bederatzietatik eguerdi inguru arte.

Eskean hamaika urtetik beherako haurrak –neskamutilak– ibiltzen dire batik-bat.

Aintzinan, buruko edo almohada alderdi batetik josita, zaku edo poltsa bihurtzen zuten, biltzen zutena jasotzeko.

*Niño Jesusen* eskean, umeek beren familiako etxearen atea jotzen zuten. Funtsean, ohitura honek bizirik jarraitzen du Zumaian.

*Gomentzago* egunean, arratsaldeko ordubietan Zumaiaiko eliz kanpaiak jotzen zituztenean, hamairuren bat urtetik beherako txirtxileria, mutilkozkorrrak eta neskakozkorrrak, Udaletxe aurretik irtenda, kalez-kale abiatzen ziren eta etxe jakinen aurrean abesten zuten:

Gomentzago buru aundi  
Noiz arrapatuko arrai ori.  
Bart arratseko ordubietan  
Itxasuaren erdian.

Leihotik intxaurrak, pikuak, mandarinak eta dirua botata saritzen zituzten, eta eskale-abeslariak txerri-burrukan hartuaz, bakoitzak hartutakoa berarentzat gordetzen zuten<sup>18</sup>.

Gabon goizean, Oñatiko Zubillaga auzoan, hamabosten bat urtetik beherako neskatoak eskean ateratzen ziren.

Neskato batek, *esku bixakin* hartuta Niño Jesus edo Aurtxoa kajatxoan eramaten zuen, eta beste batek, panderoa astintzen zuen, ibilaldia alaitzen. Auzoko etxe-atarietan, hau abesten zuten:

Belengo portalian  
Estalpe batean  
Jai da Jesus Ume  
Ganado artian.  
Astua eta idiya  
Dako aldamenian  
Arnasaz berotzeko  
Oztutzen darian.  
Zer da, zer da, zer da  
Or goiyan entzuten dou  
Soiñu ederra.

---

17. Ataun (San Gregorio auzoa): Pilar Barandiaran Barandiaran, 81 urte. Sara baserria. 1992ko uztailak 13.

18. Zumaia: Erramon Zubia Azkue, 49 urte. 1992ko urriak 16.

Zeruko aingerua.  
Badator lurrera  
Jesus adoratzera  
Goazen Belena, goazen  
Or ikusiko degu  
Aska polit baten  
Gure Salbatzailea  
Otzak ikarutzen  
Ron, ron, ron.  
Belen atian  
Amores, dolores, urturis.

Aurtxoaren eske hau goizeko eskea zen. Dirua, intxaurrak edo sagarrak ematen zizkieten, eta bildutakoa denen artean banatzen zuten. Urte haue-tan, ikastolatik ateratzen da eskea.

Ume giroan gabiltzanez gero, esango dugu Tolosako Montezkue auzokoak hau esanez urruntzen zirela eskeak erantzunik izaten ez bazuen:

Ematezkeotan emandu  
Bestela ezetz esan du  
Amak ez gaitu ate ondora  
Otzak artzera bialdu  
Menditik mendi pagua  
Pagotik pago usua  
Arkakosuak ittoko aldik  
Etxe ontako atsua<sup>19</sup>.

Zubillaga auzora itzulita, Gabon gauean morroiak eta serbitzen zeuden neskak, etxera biltzen ziren. Morroiak nagusiek emandako makailoarekin. Neskek ere, beren oparixoa ekarriko zuten.

Gaueko hamabietan auzoko mutil guztiak etxerik-etxe ibiltzen ziren hemezortzi urtez gorako neskak biltzen. Atea jo, eta gurasoek beren neskak muti-lei entregatzen zizkieten, ohean zegoena ere jeikiaraziz.

Ondoren *halako* etxean biltzen ziren, eta panderoa eta filarmonika lagun, goizeko bostak inguru arte erromerian dantzan. Gero, *beratz zopia eta txokolatía*, eta zazpiretan, irrintzika, denak mezetara. 1936. urtean galdu zen ohitura<sup>20</sup>.

Albizturko gazteria Gabon Egunean Olentzaro eskean ateratzen zen, beraiekin panderoa eta ezpainetako soinua eramanez, txapela, brusa, artilezko galtzerdi eta abarkak jantzita, aintzinako ohitura honen ezaugarri.

---

19. Tolosa (Montezkue auzoa): Pedro Zuzuarregi Aginagalde, 67 urte. Martin Txiki baserria. 1988ko urriak 2.

20. Oñati (Zubillaga auzoa): Zesarea Arrizabalaga Urzelai, 73 urte. Arretxe etxea. Maria Pilar Biain Letamendi, 60 urte. Errementarikua etxea. 1992ko irailak 30.

Baserriz-baserri abestitz hau entzuten zen:

Aingeruak esan du or mendi gaiñean  
Jesus jaio zaigula Belengo estalpean.  
Ogeitalaugarrena degu abenduan  
Deseo genduenan iritxi genduan.  
Zorionean Jesus, zu jaio ziñaden  
Bestela zeruetan sartzen ez giñaden.

Dolua zuten etxean, txapela kenduz, abestia errezo bihurtzen zuten. Animaren izenean Aitagurea errezatzen zuten.

*Olentzaro* eske honetan, dirua ematen zioten, eta bildutakoarekin Albizturko tabernan afalduko zuten. Ez zen egun jakinean egiten, baina beti ere, Eguberrietan. Ohiturak jarraitzen du oraindik ere<sup>21</sup>.

### **Eta Gabon Eguneko afaria?**

Kaletxeetan eta baserrian, ezberdin; baina denetan ahal zuten ondoena. Idatzita daramatzagun orri hauetan aipatu dugu bidebatez eta arinki, egun honetako afaria, han-hemenka finkatuta. Orain, gaiaren sarrera antzera, ohar dezagun baserri batzutan ardiren bat edo beste hiltzea festa-egun hauetako ohitura-legea izan zela.

Jarraian, ikus dezagun nolakoa zen afaria, herri eta auzo batzutan, batez ere biztanle gutxikoetan.

Lasarteko *Soroeta Aundi* baserrian –egun desagertua–, Hernaniko partean finkatzen zena, *Olentzaro* bezperan edo egun berean, goizetik, sendia arduratzen zen etxea, ikuilua, bertako ganadua eta etxe aurea garbitzen. Honela izaten zuten baserrian Eguberri festa ospakizunaren sarrera.

*Olentzaro* afarian izaten zuten: Olio-azak, bixigua, kaponarra –kapoiak balio gehiago izaten zuen eta Donostiako azokara eramaten zuten saltzera–, arroz-esnea, pikuak, sagardoa eta ardoa, kafea, pattar gorri eta zuria<sup>22</sup>.

Orion, Balentin Ikatzeta Lertxundi ontzigileak esan zidanez, olio-azak, makailoa tortilan eta turroia.

Errenteriako Zamalbide auzoan olio-azak, bixigua, oilaskoa, arroz-esnea, kafea, pattar zuria eta gorria<sup>23</sup>.

---

21. Albiztur: Bizente Eizmendi Larrarte, 77 urte. Arantzabe baserria. Jose Telleria Eizmendi, 83 urte. Artutxa baserria. 1992ko uztailak 22

22. Andoain: Pedro Zuaznabar Arrieta, 82 urte. Txitxarrain Berri etxea. 1988ko irailak 16. Lasarteko Soroeta Aundi baserrian jaio eta bititua.

23. Errenteria (Zamalbide auzoa): Antonia Auzmendi Zuloaga, 73 urte. Lubeltza Berri baserria. 1988ko martxoak 12.

Oñatiko Zubillaga auzoan, Gabonetan afari hau egiten zuten, gehienbat: Makailoa tomatearekin, intxaur-saltsa eta konpota.

Urnietako *Gurutze Berri* baserrian jakitea izan nuenez, *Olentzaro* egunean zeri hankak eta belarriak izaten zituzten afaltzeko. Gero zurrurutuna, baratxuri zopa eta makailo zipiztuaz egina, mahaira ateratzeko orduan arraultza botata. Ondoren sagar eta aranez egindako konpota, kafea eta pattar zuria edo *ttotta*<sup>24</sup>.

Zenbait herritan karakolak izaten dituzte Gabon eguneko afarian, adibidez, Astigarragan<sup>25</sup> eta Hondarribian. Azken herri honetako arrantzale munduan, *Olentzaro* eguneko afaria karakolez, makailoaz eta arrozelaz (bixigua) egiten dute, oilaskoarekin batera; ondoren konpota, aran eta piku lehorrez egindakoa<sup>26</sup>.

Nuarben, auzoko Pedro Pildainek 1973. urtean esan zidanez, gaueko afaria prestatzeko hiru edo lau pago-mozkor pizten zituzten lastoa erabiliz, lagazetik zintzilik kobrezko pertza jarrita.

Afaltzeko, baratxuri-zopa eta makailoa –urtean zehar etxetik kanpora bizi den familikoak ekarria, edo baserriaren nagusiak maizterrari emandakoa urteko errenta ordaintzean, ohitura-legea betetzeko–. Gero gaztainak, arroz-esnea eta ardotan sagarrez egindako konpota.

Goizaldera baratxuri-zopa berriro ere, eta zurrakapotea, piku onduak eta kanela zotza ardotan egosita.

Familia batzutan, *estapabua* jaten zuten, lapikoan egositako haragiari, irina eta tipula txikituz egindako saltsa gehituz.

Beste baserri batzutan, berriz, buskantza izaten zuten afaltzeko.

Oheratu aurretik, pago-mozkorrak surtako hautsetan estaltzen zituzten, hurrengo goizera arte, eta gauza bera errepikatzen zuten egurrak erre arte.

Orain dela lauogeita bosten bat urte arte, Nuarden krisailua, *Kuxulua* deitua, erabiltzen zuten argia egiteko.

Gaztaina aipatu dugunez, adieraziko dut bere garrantzia igarotako urteetan, batez ere, nekazari eta langile giroan.

XVIIIgarrengo *matxinada*, 1766koa hain zuzen ere, iraultzaileen edo matxinoen eskeetako bat gaztain hamarrena eman beharra kentzearena zen.

---

24. Urnietako Kasiano Setien Ezeiza, 67 urte. *Gurutze Berri* baserria. 1991ko irailak 19.

25. Astigarraga: Jose Irizar Aldanondo, 42 urte. Lizardi baserria. 1992ko urriak 21.

26. Hondarribia: Carlos Arbelaz NARBARTE, 86 urte, eta Juan LARRARTE Lekuona, 78 urte. 1992ko urriak 21.

Gabon eguneko afari ondoren Gauerdiko Meza, eta meza ondoren, etxean, *Sorgin afaria*, gauerdia eta sorginak ondo uztartzen baitira.

Leku batzutan, *Sorgin afaria* bigarren afaria izan da.

Afalondoko ezkila jotzeak ere, izan du zerikusirik Eguberrietako egun hauetan.

Antonio Truebak hau dio, gaztelaniaz:

Campanero, sube, sube  
a la torre de la iglesia,  
y tus "hosannas" de gozo  
el Universo estremezcan,  
que a cumplirse van los Santos  
Vaticinios del profeta,  
que, compañeros del alma,  
esta noche es Nochebuena.



Gabon gauean ez da arrantzara joan behar.

Badakigu arrantzaleek gehienetan Gabon Eguna jai egiten dutela, uretara ez direla ateratzen.

Arrantzale familiako bati entzuna diot, Ondarruko bere arbasoek esan ohi zutela Gabonetan ez zela angula arrantzara joan behar.

Esana aintzakotzat hartu gabe, arrantzale bat bere tresnak hartu eta gauez, Gabon egunean, aipatutako lansaiolari ekin omen zion, eta gizon haren aztarnarik ez omen zen gehiago izan. Ez omen zen azaldu, ez bizirik eta ez gorpu<sup>27</sup>.

Eguberri egunean, gehienetan meza nagusiaren ondoren, zenbait herritan ohitura izan da umeak eta gazteria eskean ateratzekoa. Atez-ate, beste abes-tien artean, honela agurtuaz:

Egun, egun on  
Gaur Pazkoa  
Jesus jaio da  
Eta gure gozoa.

Egun honetan hiru meza entzuteko ohitura zabaldua zen, eta Tolosako Montezkue auzoko Martin Txiki baserrian mintzatu zitzaizkidan, esanez Eguberri egunean ez zutela ganadurik uztartzen, ezta ere Ostegun Santu goizeko hamarretatik larunbat eguerdi arte<sup>28</sup>.

Baina ohar gaitezen, ohitura hauek, beste batzuren antzera, erraz aldatu egiten direla herritik herrira, eta baita herri bereko etxe batetik bestera.

Eguberri eguneko bazkaria, etxe bakoitzak ahal zuen ondoena prestatu izan du, lehen eta orain.

Bat aipatzekotan, adibide bezala aipa dezagun Albizurreko baserri batekoa.

Oilarra eta oilo banaren salda; ondoren, garbantzia, txorizoa eta urdai puskarekin; aza odolkiarekin; oilarra eta oilloa; konpota, sagar, kanela-zotz eta azukreak egindakoa; ardoa, kafea, pattar zuria edo gorria<sup>29</sup>.

### **Urte Zaharrari agurra nola?**

Hondarribiako baserritarrak Urte Zaharra ospatzeko *Dios te Salbe* kantari ibiltzen dira eskean, atez-ate. Ohiturazko abestiari koplerruak ematen dio hasera, ondoren taldeak jarraitzeko:

Koplerruak:

Alabatua, bedeinkatua  
Pekatuaren mantxarik gabe  
Señora Konzebitua.

---

27. Donostia: Jose Manuel Susteta Lersundi, 52 urte. 1988ko azaroak 2.

28. Tolosa (Montezkue auzoa): Pedro Zuzuarregi Aginagalde, 67 urte. 1988ko urriak 2.

29. Albiztur: Jose Telleria Eizmendi, 83 urte. Artutxa baserria. 1992ko uztailak 22.



Taldeak:

Dios te Salbe  
Ongi etorri  
Gabon Jainkuak diela  
Legiarekin kunpli dezagun  
Urte Berriaren bezperan<sup>30</sup>.

Kopleruak:

Zapata txuri paperez  
Ebia danian baterez.  
Nagusi jauna  
Esan be zaigun  
Asiko geran edo ez.

Dios te Salbe  
(...)

Kopleruak:

Nagusi Jaunak  
Baietz, baietz dio eta  
Nere lagunak  
Dios te Salbe erantzun  
Garbuarekin.

Dios te Salbe  
(...)

Kopleruak:

Au aiziaren epel epela,  
Aidian dabil orbela.  
Etxe ontako familiari  
Jainkuak gabon diela<sup>31</sup>.

Aintzinan, Nuarben otargile nagusiek, beren langileekin biltzen ziren afaltzera, eta nagusiek ordaintzen zuten afaria. Urte Zaharreko afari hau, hiru edo lau tabernatan egiten zuten.

Lasarteko *Soroeta Aundi* baserrian txalaparta joaz agurtzen zituzten Urte Zaharra eta Urte Berria, gauerdia aldera.

---

30. Gaueko hamabiak jo ondoren Urte Berriaren bezperan esan ordeztu Urte Berriaren sarrera esaten dute.

31. Hondarribia: Salome Goikoetxea Almandoz, 59 urte. Montaña-enea Etxe Txiki (Akartegi auzoa). 1992ko urriak 21. Jose Ramon Goikoetxea Berra, 61 urte. Montaña-enea baserria. 1992ko urriak 27.

Baserri honetan, Zuaznabar sendia bizitu zen, eta nire adiskide Pedro Zuaznabarrek eta bere anaiak erakutsi zidaten txalaparta jotzeko beren trebetasuna.

Baserriaren sarrerako ate aurrean jartzen ziren, eta sendiaren ohitura zaharrari jarraituaz, etxekoren batek kalera begira idi adarra hiru aldiz moztzean joaz, eta berehala, beste bat luzeagoan, adierazten zuen ondoren festa giroko txalaparta entzungo zela. Txalaparta *Olentzero* gauean ere jotzen zuten.

Afaria, Urte Zaharreko afaria, Gabon egunekoaren antzekoa.

Urte Zahar gauean, afaldu aurretik tximinia garbitzen zuten, eta egun berean kedarra baratxuri landareari botatzen zioten. Urte Zahar gauean, tximiniak garbitzeko ohitura hau nahiko zabaldua dugu, batez ere, Nafarroa aldean. Tximinia garbitzeko, baserretza sorta soka luzeaz lotuta erabiltzen zuten. Urte Zaharreko afarian, turroia izaten zuten; Donostian eguneroko berdura eta esne-hartzaileak ematen zien turroia<sup>32</sup>.

Arantzazu auzoko *Soroandieta* baserriko etxejauna den Juan Urzelaik esanda dakit Urte Zahar egunean *tximini ikusleak* ibiltzen zirela. Auzoko bi gizon edo mutil, txandaka, izaten ziren tximiniak garbiak zeuden ala ez ikusten zutenak<sup>33</sup>.

Gizonak, hemen ere, Urte Zahar egunez, sua berarekin izan du. Besterik ez bada ere, gogoratuko dut Arabako herri askotan zahagi eta zahato zaharrek erretzeko ohitura, *erre puierre* esanez, batetik bestera, gora eta behera, sugar eta ke artean korrika.

Lo mismo en la humilde choza,  
que en la morada soberbia  
blancas espirales de humo,  
hasta los cielos se elevan.

(Antonio de Trueba)

Suaren inguruan ez dut ahaztuko ura, Urte Berriko *ur-berria*.

*Ur-berriak*, Nafarrora begiratzera narama.

Adibidez, Zuazun herriko mutilak, eskera ateratzen ziren, mutil nagusiaren etxetik. Zahato ardoa alaigarri, txarroan *ur-berria* herriko iturritik hartua. Beren ohizko ibilaldian, atez-ateko agurra izaten zuten:

---

32. Andoain: Pedro Zuaznabar Arrieta, 82 urte. Txixarrain Berri etxea 1988ko irailak 16. Lasarteko Soroeta Aundi baserrian jaioa eta bizitua.

33. Oñati (Arantzazu): Juan Urzelai Biain, 65 urte. Soroandieta baserria. 1985eko azaroak 2.

Urte berri, egun ona  
Emen gakargu ur berrie,  
Iriki ezazu atarie.  
Etxe ontako etxeoandriak  
Amabirjiña dirudi,  
Iruri, iruri,  
Amabirjiña dirudi.  
Sentitzen zaitut sentitzen  
Asi zerala jaikitzen  
Urdai zarrastakoa ebakitzen.

Azken agurra baino lehen, ur-ontzitxoia beteko zioten eta eskaini<sup>34</sup>.

Antzeko ohituren berri entzutea izan nuen Udabe herrixkan<sup>35</sup>.

### **Errege jai**

377. urtera arte, Eguberri eta Errege jaiak, egun berean ziren; harrez gero ospatzen ditugu banakatuak.

Errege bezperako ohitura berezia, Euskalerriko zenbait herritan behintzat, zintzarria jotzen ibiltzea izan da, eta baita etxerik-etxe agurtzen eskean ere.

Errege doktore eta apainak, kaletar bihurtu zaizkigu. Ez dira ixilik eta gau ilunean beren eginkizuna betetzen ibiltzen, baizik argi aberatsen artean, leku-koez inguraturik, pertsona helduen ikuskizun eta entretenigarri, eta umeen itxaropen zoragarri.

Errege bezpera edo egunean, ohizkoa izan da familikoen artean kartak banatzea, eta egunerako Errege eta Erregina izendatzea.

Hauek, sinbolikoki, zerbait ordaintzera behartuta zeuden, *Errege* eta *Erregina*-rena eginez; hemen ere gertatzen zaigu ordezeko nortasuna.

Tolosan bada Emeterio Arreseren abestitza, Errege egunaren bezperarako jarria, Eduardo Mokoroaren musikaz abestu izan dena. Olerkiaren hasierak honela dio:

---

34. Zuazun: Dionisia Madoz Senosiain, 88 urte, eta Mariano Huarte Ziriako, 72 urte. 1980ko urtarrilak 6.

35. Udabe: Martin Iribarren Anza, 76 urte. Martenea etxea. 1981eko urtarrilak 2. Urdiaingo Ur-berria ohituraz mintzatu zaigu, behin baino gehiagoetan, Jose Maria Satrustegi adiskidea.

Izar txuri-txuri bat  
agertu da goyen  
au poxa!, laister dira  
Erregiak emen.  
Pitxi eder ta goxo  
ekartzalle oien  
bidera gu, amatxo,  
zurekin lenbailen.

Goazen, goazen txit alai  
Izaskun mendira,  
argitasun polita  
piztu dan tokira (bitan).

Agur, agur, agur  
Errege zaldunak  
Erregien errege  
Gurtu naidutenak.

Hondarribian, Errege Egunaren goizean eliz parroikiko hamarretako mezan ofrenda egiteko ohitura zen. Aldare ondoan Alkatea mahai-buru jartzen zen, eta emakumeak Alkatearengana hurbildu eta mahai gainean norbere oparia uzten zuen, batez ere, opilak.

Gero, ofrenda hau herriko ospitalera eramaten zuten. Orain dela hogeiren bat urte baztertu zen ohitura<sup>36</sup>.

Erdi Aroko berri batekin utziko ditugu Gabon aroko ospakizun eta ohiturak:

1381 garrengo aipamena da:

“Del hostel del rey, entre enero y octubre. El itinerario real es el siguiente: Puente la Reina, Estella, Olite, Pamplona (en febrero), nuevamente Olite y Pamplona (abril y mayo), Barasoain (hasta el 25 de septiembre), Olite, Sangüesa, Lumbier, Urroz, Roncesvalles, Larrasoaña y Pamplona (octubre). En el capítulo de *mises* o gastos reales, se da cuenta de compras, etc. El 1 de febrero, Carlos II hace una ofrenda de 20 sueldos, (...). El 6 se paga un par de zapatos comprados para *le petit roy*, o sea, el rey de la faba, que actuaba en la fiesta de la epifanía (...)”<sup>37</sup>.

## LAZKAOKO ASTOTXO EGUNA

Lazkaoko Astotxok, gaur egun, ondoko hiru zatiak ditu:

1) *Obleak saltzea*, Parrokiko gazteek egiten dutena.

---

36. Hondarribia: Anizeto Sagarzazu Iriarte, 72 urte. Tximista-enea etxea. 1992ko urriak 27.

37. Catálogo del Archivo General. Sección de Comptos. Registros. Tomo LII - Años 1365/1535 - N- 905 - Año 1381, pp.71/72. Diputación Foral de Navarra. Florencio Idoate. Director del Archivo General de Navarra.

- 2) Mojen monastegiko *meza*. Monastegi aurrean estalpea jartzen dute, Familia Santua bertan gordetzen delarik, eta astoa ere agertzen da.
- 3) Eguerdi aldera, *Egiptora ihes egitearen* antzespena. Iribarrun kalean hasi, mojen monastegi aurretik pasa eta herriko Udaletxe aurrean bukatu.

Antzespenean, Herodesen dekretua hiru bider esaten da, lehenengoa mojen monastegi aurrean. Izan ere, monastegi aurrean estalpetxo dago, barruan Jose, Maria eta Haurra dituelarik, eta astoa inguruan. Aingerua inguratzen zaie Herodesen dekretuaren berri emanez. Besterik gabe, eta soldaduak herriko jende artean bi urtetik beherako haurren bila dabilzan bitartean, Familia Santuak jende artean izkutatuta ihes egiten du.

Antzespenean garrantzitsuena, *Astotxo* da. Lazkaora jende asko biltzen du antzespeneak, baina ez esku-hutsik.

Aintzinan dirua ekarri ohi zuten batzuk, beste batzuk opariak. Egun, opariak ekartzeko ohitura galdua dugu. Mojek, esker ona agertzeko, hamaiketakoa eskeintzen diete monastegira hurbiltzen direnei<sup>38</sup>.

## SAN ANTON

Urtarrilak hamazazpi, San Anton eguna, bereziki aziendak bedeinkatzeko eguna. San Anton daazienda guztien patroia.

Ikonografian, San Anton edo San Antonio Abad zerria oin ondoan duela azaltzen zaigu. Tentazioaren errepresentazioa da, Santuak menderatuko duen zerri tankerako tentazioa.

Berastegiko San Anton ermitan, abere bedeinkatzea izaten da batez ere, abenduaren 13an Zumarragan Santa Luzi ferian erositakoa, apika. Eta batez ere diot, egun eta leku berean bedeinkatzen zirelako behi eta zerriak.

Meza aurretik, prozesioa egiten dute ermitaren jiran baserrietako gizon-emakumeek, kanpaia jotzearekin.



---

38. Lazkao: Juan Maria Olaetxea Garaikoetxea, 43 urte. 1992ko urriak 11.

Meza ondoren, ermita atarian aziendei begira, apaizak bedeinkatu egiten ditu. Ondoren, baserritar bakoitzak bere azienda hartu eta etxeruntz abiatzen da, kanpai soinua laguntzaile alai duela.

Gaueko bederatzia aldera, aintzinan gizon gazte eta, batez ere adinekoak, eta egun, gizon-emakumeak, herriko tabernan biltzen dira afaltzeko, bertsolari eta soinu-joleekin. Afaldu eta bertsoak entzun ondoren, dantzaldia goizaldera arte<sup>39</sup>.

Nafarroako Zubieta herrian dagoen San Anton ermitan aziendak bedein-katzen dituzte, batez ere, astoak. Bedeinkatu ondoren, bi edo hiru jira ematen dizkiote ermitari aziendak hartuta. Egun honetan bedeinkatutako astoek ez zuten lanik egiten, jai baizik, eta pentsua ere egunerokoa halako bi ematen zieten: artaburu baten orde, bi<sup>40</sup>.

Erreterriako Zamalbide auzoan esan zidaten San Anton egunean artoa bedeinkatzen dela, ondoren artoa ganaduari emateko. Azken urteotan, bedeinkazioa auzoko elizan egiten da; lehenago, berriz, Erreterriako eliz parrokan.

San Anton eguerdian, baserritarrek bazkaltzera biltzen dira tabernaren batetan<sup>41</sup>.

Getarian, San Anton eguna jai égiten da. Goizean Meza Nagusia, Nekazarien Ermandadeak ateratakoa.

Ondoren, bertsolariak Udaletxeko Plazan, bertan aurkitzen diren guztiek txakolina probatzeko aukera dutelarik, herriko uztadunek edo kosetxeroek eskainita.

Jatorriz, festa honek nekazari munduan du bere sustraia; baina egun, San Anton ospakizuna arrantzale girokoa da, batez ere. Gaurko gazte askorentzat, arrantzaleen jai da<sup>42</sup>.

Aipatu besterik ez bada ere, hemen oroituko dugu Tolosako San Anton kofradia, 1635. urtean sortua, eta honekin batera bururaten zaizkit beste kofradiak, beren eguna, Patroiaren eguna, gremio batekin bateratua egon zitekeena, eliz eta kale festaz ospatzen zutena.

---

39. Berastegi: Frantzisko Saizar Etxeberria, 57 urte. Borda Txuri baserria. 1990eko irailak 18.

40. Erreterria: Jose Luis Altzu Fagoaga, 55 urte. Zubietako Altzus-nea etxean jaioa. 1989ko urtarrilak 17.

41. Erreterria (Zamalbide auzoa): Antonia Auzmendi Zuloaga, 73 urte. Lubeltza Berri baserria. 1988ko martxoak 12.

42. Getaria: Iñaki Badiola Arrizabalaga, 62 urte. Apaiz Etxea. 1992ko urriak 16.

Negukoa ez bada ere, une honetan baliagarria iruditu zait begien aurrean daukadan ohartxo, Tolosako Udal Artxibotik jasoa eta, zalantzarik gabe, San Roke Kofradiarena:

“1666.  
Irailak 10  
Libramiento gastos corrida de toros del día San Roque”.

Mutrikuko *kordeleixaren* patroia San Anton izaten zen. Egunean, langile guztiek elkarrekin egiten zuten bazkaria edo afaria, ohitura bixigua jatekoa izanik<sup>43</sup>.

### **NUARBEN SAN JULIAN EGUNA, OTARGILEEN JAIA**

Aipatu dugu Urte Zahar gaueko otargileen afaria, desagertutako ohitura modura.

Afari hura egiteko ohitura San Julian gauera igaro da. San Julian otargileen patroia da, eta auzo honetan jai egiten dute, langintzak auzoan izan duen garrantziagatik. Ospakizun berria da Nuarben San Julian hau, 1955. urte ingurukoa.



Goizean meza izaten dute. Ondoren txistulariak eta soinu-joleak plazan, eta auzokoak eta inguruetakoak dantzan.

Matximenta auzoko otargileek ere jai egiten dute San Julian egunean<sup>44</sup>; baina bi auzo etako otargintzak, behe-rako haundia egin du azkeneko urteetan, neronek ikertuz ikusi izan dudanez.

---

43. Mutriku: Eli Arrieta Maiz, 58 urte. 1990eko irailak 13.

44. Matximenta: Jose Lasa Gurrutxaga, 68 urte. Isuola baserria. 1992ko irailak 20. Nuarbe: Jose Maria Etxeberria Garin, 70 urte. Nikolaskoa etxea. 1992ko irailak 20.

## SAN SEBASTIAN

Santuaren bezperan eta egunean, Eliz funtzioez gain, Donostia danborrada haundi bihurtzen da. Gaia ikertu dutenak ez datoz bat festaren sorrera ematerakoan. Badirudi denak ados daudela aurreko mendean sortua dela esatean. Guk geok, Raimundo Sarriegiren eskutik ikusi dugu danborrada. Musikalari herrikoï honen aurretik ere danbor jotzea izango zela ez dugu zalantzarik, baina Sarriegiren aurrekoa, beste danborrada izango zen. Beraz, guk entzuten dugun danborrada, Raimundo Sarriegirekin bateratuta ezagutzen dugu.

Azpeitian San Inazio jaiak, uda bete-betea, San Sebastian ospakizuna negu gorrian, aintzinako kutsu maitekorraz sartu du. Bi festek beren lekua eta giroa dute. Guk, Azpeitiko San Sebastian ospakizunari *Festa Zaharra* deituko diogu.

Garai batean, San Sebastian eguna donostia-rrentzat lauteriaren ataria zen, sarrera esango genuke.

Debako Elorriaga edo Elorrixa auzoan dago San Sebastian izeneko elizatxoa, eta honen inguruko baserri-tarrek ez zuten izaten gogokoa kaletarrak ikusmiran hurbiltzea; hori dela eta, esaten omen zuten:

“San Sebastian Martirixa, egintzazu elurra ala ebixa, azaldu ez dedin gure miserixa”.

San Sebastian egunean, goizean meza eta arratsaldean, eguraldi ona lagun, erromeria egiten dute elizatxoaren inguruan<sup>45</sup>.



---

45. Zumaia: Erramon Zubia Azkue, 49 urte. 1992ko urriak 16.



## **OTSAILAREN AURENA, SANTA BRIGIDAREN EGUNA**

Santak behien errapeak hazten omen ditu, eta aurrekoa San Juan Bataiatzailearen inguruko ohiturarekin uztartuko dut. Ohitura edo erritoan bedeinkatutako belarrak –*belar on* deituak– egosi eta urez errapea igurtzita errape-mina sendatzen omen du.

## **KANDELARIO**



*Kandelari hotza, neguaren bihotza. Kandelari bero, negua da gero.* Baina alderantziz ere entzun izan ditugu antzeko esaerak.

Otsailaren bia, Kandelariaren eguna, herri batzutan erdijai duela gutxi arte.

Kandela eta argizari edo ezkobilduak bedeinkatzeko eguna. Kandela eta argizariak urtean zeharreko ohizko gertakizunetan pizten dira. Adibidez, etxekoren bati Elizakoak ekartzen dizkiotenean, ekaitza izandakoan, etab.

Mutiloan jasoa dut otsailaren bian eskean ibiltzen zirela, burrunzia hartu eta txorizo eta urdaia (edo beste zerbait) biltzen.

Mutiloako puska-biltze berezi xamar honetan abesten zuten:

Andre Mari otsailko, otsailko  
Nik otso bizia ilko,  
Okela bat eta okela bi,  
Nere burrunzia bete bedi<sup>46</sup>.

Esan dezagun Kandelero egunean ospatu izan direla, eta oraindik ere ospatzen direla, lauteri edo lote batzu.

Otsailaren 2an Garbikunde eguna ere badugu, eta garbikundearekin orituko dugu, berriz ere, sua:

Que a mí me sobra en Toledo  
Donde vivir, sin que tenga  
Que rozarme con traidores,  
Cuyo solo aliento infesta.  
Y en cuanto él deje mi casa,  
Antes de tornar yo a ella,  
Purificaré con fuego  
Sus paredes y sus puertas.

(Duque de Rivas. Romances)

## PERTZ KONPONTZAILEAK

Kandelari egunaz idatzi dugunez gero, oroigarritxoa egingo diegu pertz eta bestelako tresna konpontzaileei:

*Konponi kaldera, arregla chocolatera* deiadarka ibiltzen ziren gizon-emakume arrotz haien inguruan antolatu den herri-jaiak sortzea Donostian izan bazuen ere, beste herrietara ere zabaldu da, Tolosara esate baterako. *Kaldere-roen* agerraldia, kalean zehar, Sarriegiren musika alaiaz.

Pertz konpontzaileak eta txorroskileak euria iragartzen digu, Gorosabelek hala dio, eta txorroskileengatik ere askotan entzuna dugu.

Badugu herririk herri ibili ziren haietako baten berri, Antonio Dugiols-arena, ain zuzen.



---

46. Mutiloa: Mariano Iparragirre Apaolaza, 86 urte. Ugalde baserria. 1980ko otsailak 11.

Nire ikerketan jaso dudanez, Dugiols-tar hau Legorretan aritu zen lanean XVIII. mendean. Ondoren, Kintin izeneko bere semearekin batera, lantegi haundiak, pertzolak, izan zituen Tolosa eta Belauntza. Kintin Dugiols-en semea izan zen Felipe Dugiols Balanzategi militar ospetsu tolosarra.

## SAN BLAS

Tolosako San Blas ermitaren inguruan, Kandelero egunean ospatu ohi da festa bezpera, filarmonica doinuaz dantza egiten eta erroskilak saltzen.

Mahai gainean, elizatxo inguruan, kordoi eta domina bedeinkatuak saltzen dituzte. Kordoi eta dominak jartzen zizkieten gurasoek umeei eztarriko mina uxatu edo sendatzeko.

Nire berriemaileak entzuna die bere arbasoei San Blas egunez elizaxora eramaten zituztela opari modura zerrimihiak. Oparia zerria hiltzen zuen baserriak egiten zuen; baina ez Tolosa edo Goierriko baserrikakoek, Erretereria, Hernani, Urnieta, Asteasu, etab.ekoak.

San Blas egunez, gosaltzeko txokolatea bolatuarekin. izaten zuten, batez ere erlikiaren ardura zuten apaizek; bazkaltzeko ere, ez zuten zerri-hanka faltarik izaten ermita etxean.

Eguna ospatzen hasteko, goizean meza izaten dute. Gero izaten da Meza Nagusia, eta aurretik eta ondoren, janari eta baserriko gaien bedeinkazioa. Ondoren, erlikiari muin ematea. Aintzinan, apaizak izaten zuen ardura; azkeneko urteetan, erlikia aldarean izaten da, eta bertan diote muin<sup>47</sup>.

San Blas ez da umeen eztarriko minaren aurkako zaindaria soilik, baita gizon-emakume guztiena ere, adin guztietakoena. Eztula egit duenari *San Blas* esateko ohitura ezagutu dugu.

Norbaitek esango du, arrazoin osoz, eztarriko gaitzak, katarroak eta eztulak, festa triste xamarrek direla.

Baina hala izan arren, San Blas egunak badu bere izate alaia, bere festa ospakizuna. San Blas izeneko elizatxoaren inguruan antolatzen dute dantza eta piperropil-salmenta, dei bereziaz adierazita: *bata, bia, hirua...*

Tolosako San Blas ermitaren inguruan, orain dela hirurogeita bosten bat urte arte, herriko gazteen ohitura, besteak beste, *zankiñakan* jolastekoa zen.

Aiako Altzola auzoan, San Blas egunean baserri bakoitzak zituen ganadu buru adina artaburu bedeinkatzen zituen. Ondoren, aziendei artaburu bana ematen zioten. Hala uxatzen zituzten gaisotasunak<sup>48</sup>.

---

47. Tolosa (San Blas ermita-etxea): Klara Insausti Azaldegi, 75 urte. 1988ko urriak 16.

48. Aia (Altzola auzoa): Antonio Argote Agirre, 84 urte. Arriarte baserria. 1987ko abendua.



## SANTA AGEDA

Santa martiriak, leienda aberastu du. Agi danez, XIV. mende aldekoa omen da Santaren on-zaletasuna Elizaren barnean. *Legearekin kunpli dezagun* eskean behin eta berri entzuten dugunoi adierazten digu berez duen aintzinasuna, alegia, ez dela atzo goizeko ohitura. Eskean ibiltzeak leku batzutan bizi-bizirik irauten du, eta beste batzutan aldiz, igarotako gauza bezala oroitzen dugu. Zenbait herritan, ez dute Santa Ageda bezperako ospakizunaren berririk ere.

Toki batzutan, Santa Ageda eta Karnabalak edo lauteriak, nahasian ospatu izan dira, egunaren egokitasunari begiratuta. Baina oraingoz utz dezagun gaia.

Egun entzuten ez bada ere, Amezketa Elbarrena auzokoek orain dela berrogeita hamabost urte abesten zuten:

Santa Ageda bezpera, beti onela ez gera, elbarrendarrak atera gera eskera.

Eskeak, dozena bat arrautza, lukainka edo lau libako ogi borobila izaten zuen erantzuna, baserri bakoitzean. Biharamonean, eskean ibilitako gazteek jai egiten zuten, egun pasa, bildutakoari beharrezkoa erantsi eta bazkariafariak eginez<sup>49</sup>.

Tolosako Usabal auzoan *Santa Ageda eskian* nola abesten zuten oroitzen da, dena ez bada ere, laurogeita hamar urtetik gorako nire berriemailea, filarmonika soinuaz eta ohiturazko makila zartadaz.

Kopleruak ematen zion hasera:

---

49. Amezketa: Manuel Karrera Ormaetxea, 84 urte. Errota Zarra baserria. 1986ko ekainak 8.

Galdetutzen det  
Nagusi jauna da kanpoan edo etxian  
Berak nai dunen  
Pasiatzen du zazpi mulako kotxian.

Taldeak jarraitu:

Dios te Salbe  
Ongi etorri  
Gabon Jainkuak diela,  
Legiarekin kunpli dezagun  
Santa Ageda bezpera.

Kopleruak:

Etxeko olluak bi  
Bata beste dirudi.  
Etxe ontako etxeoandriak  
Amabirgiña dirudi.

Taldeak:

Dios te Salbe  
(...)

Kopleruak:

Baratzan dago txermena  
Luzia eta lerdena  
Etxekoandria koplaz dezagun  
Nagusiaren urrena.

Taldeak:

Dios te Salbe  
(...)

Kopleruak:

Gogotikan ari gera ta  
Oraindikan ez degu etsiko  
Leena bazera  
Eman gabe  
Zuk ez gaituzu utziko.

Taldeak:

Dios te Salbe  
(...)

Taldea San Blas eta Usabal bailaretako gazteek osatzen zuten, eta abes-  
titza orain dela berrogeita hamabosten bat urtera arte kantatzen zuten. Bil-  
dutako sariarekin afaria egiten zuten tabernan hurrengo igandean<sup>50</sup>.

Matximentan, Santa Ageda bezperan goizetik baserriz-baserra eta etxerik-  
etxe *Santa Ageda* eskean ateratzen dira. Gazte talde bakarra edo bitan, dul-  
tzinie, danborra eta idiadarra lagun, bidean adarra joaz, *Santa Ageda* eskean  
badatozela adieraziz, *nobedadea* badatorrela.

Egunaren ezaugarri, brusa eta larruzko abarkak. Taldeko norbaitek zaku  
zuria eramaten du, emandako lukainak jasotzeko, azkeneko urteetan dirua  
ematea zabaldua badago ere.

Dolua duten etxe-atarian, urtean gorpua ateratako baserrian, txapela  
kendu eta kirieleisonak errezatzen dituzte.

Beste ateetan, berriz, bertsolaria izaten da agurra egiten duena:

Illaren bian Kandelario  
Bostian Santa Ageda  
Usarioa galdu eztedin  
Etorri gera eskea.

Koplariaren ondoren taldeak errepikatzen du, dultziniak eta danborrak  
lagunduta.

Gero, koplariak edo *predikadoreak* Santa Agedaren bititza abesten du,  
ondoren etxeko nagusia agurtzeko, eta taldeak gauza bera errepikatu:

Nagusi jauna aurrera  
Erreberentzia lurrera  
Lotsaz garela etorri gera  
Jauna berorren aurrera.

Alkate jaunaz  
Egondu gera  
Atzoko arratsaldian  
Libertadi gurekin degu  
Ibiltzeko pakian,  
Bestela sartuko gaituala  
Kalabozo illun batean.

Etxe onetako nagusi jaunak  
Urregorritzko bizarra.  
Urregorritzko bizarrarekin  
Diamantezko espalda.  
Berori bezin gizon presturik  
Erri honetan ez al da.

---

50. Tolosa (Usabal auzoa): Jose Maria Caminos Arostegi, 95 urte. Sarrola baserria. 1988ko  
urriak 26.

Etxekoandre zabala  
Etxe ontako alaba  
Or bidean esan digute  
limosnagillea zerela.

Etxekoandria orra ona  
Zere gauzaren doi ona  
Paskua goizian jantziko ditu  
Bere soiñian amar gona.

Txuri-nabarra azpiko,  
Gorri ederra gaineko,  
Andria zeure parerik ez da  
Plaza bat onratutzeko.

Etxekoandria nun zera  
Goiko ganbaran al zera,  
Lukainkatxo pare batekin  
Etorri zaitez atera.

Lukainkarik ematen ez bazieten, abesten zuten:

Tolosatikan beratxuan da  
Erri txiki bat Irura,  
Besterik ez bada  
Igual da ere  
Ekartzen badezu dirua.

Santa Ageda bezperako eskearen usuarioak jarraitzen du, eta bildutakoarekin auzoko tabernan afaltzen dute eskean ibilitako gazteek.

Matximentan, Santa Ageda egunean jai egiten dute<sup>51</sup>.

Matximentako abestitz hauen osagarri, Oñatiko Zubillaga auzoan entzundakoa:

Atiak dako zuloa  
Baneukan errezelua,  
Ortixe ikusten degu  
Lukainka korda osua.  
Ori ebaten ibili gabe  
Ekarri zazu osoa.

Santa Agedan alabantza  
Kantatutzeroa nua ni  
Grazia dioska ipini  
Santa Bedeinkatu oni  
Onen fedean bizi gaitezen  
Osasunaz eta ongi<sup>52</sup>.

---

51. Matximenta: Jose Lasa Gurrutxaga, 67 urte. Isuola baserria. 1991ko irailak 20.

52. Oñati (Zubillaga auzoa): Zesarea Arrizabalaga Urzelai, 73 urte. Arretxe etxea. 1992ko irailak 30.

Aizarnazabalen, Santa Ageda bezperako eskea *Santa Eskia* izenez ezagutzen zuten eta dute.

Mutil kozkorrak egunez ibiltzen ziren, eta gazteriak gauetz egiten zuen ohi-turazko *Santa Eskia*.

Dirua eta arrautzak ematen zizkieten, etxerik-etxe agurra eginez:

Santa Martiri maitia  
Dago errukiz betia,  
Berak alkantzatu dagigula  
Osasuna eta pakia.

Joles ta joles  
Buena gente,  
Allegatu naiz atian,  
Allegatu naiz atian eta  
Kontsola bidez jendia.

Errekaldian arria  
Aren gañean txoria  
Etxe ontatik esperatzen det  
Errealbiko txuria.

Hartu beharreko saria hartu ondoren, eskean zebilen taldea urrundu egiten zen esanez:

Limosna ere  
Artu degu ta  
Orain abia gaitian,  
Adiosikan ez degu eta  
Agur ikusi artian.

Umeen, egun neska-mutilak, ohiturak jarraitzen du; baina gazteen *Santa Eskia* oraingoz ahaztua dugu<sup>53</sup>.

Bedaioiko *Santa Ageda* eskea nahastu xamarra ibili da karnabaletako ospakizunarekin. *Santageda* taldea baserri-baserri eskean ibiltzen zen, koplari eta txistulariekin. Gure berririk zaharrenak *Arrupe* –Bedaioiko bere baserriaren izena– txistulariarengana garamatza, eta bere ondorengoa den Juan Antonio Sarasola, bedaiotarra bera ere, luzaro izan zen auzoko ohitura hau alaitu zuen gizona.

Juan Antonio Sarasola, 1887. urtean *Zumitzketa* baserrian jaioa, ezagutu genuen eta baita harremanik izan ere.

---

53. Aizarnazabal: Maria Teresa Ostolaza Etxaniz, 65 urte. Plaza Barrena (Estanko) etxea. 1991ko urriak 12.



1931. urte inguruan galdu zen otsailaren 4eko ohitura zaharra, eta honek ekarri zuen Karnabalaren ospakizuna indartzea, gora-beherak izan baziren ere. Bedaioko *txantxok*, Astelenita eta Asteartitako *ingurutxoan* eta *makil dantzan* partaide izanez<sup>54</sup>.

## IÑAUTERIA

Hamaika urtez behin, Santa Ageda eguna eta lauteri Igandea egun berean izaten dira.

Neguko festa batzu, hemen ikusi ditugunak, erreka txiki eta apalaren antzera hurbiltzen dira lauteria, Aratoztia edo Aratozte jai aberatsetara.

Iñauteri edo Karnabalak izan dire noski gizarte jairik osoenak eta borobille-nak. Guzia berekin baidute: parrealgara, basatikeria, maltzur-jokoa, izua, kezka-bide eta zitalkeria. Beroietan baidiraute totem edo diralako aintzin-kutsudun sentipenik zaarrenak.

Pío Baroja: *Los demonios del Carnaval* (Vitrina pintoresca)

Iñauteriei buruz zerbait idatzi eta mintzatua naiz, eta une honetan, esandakoa ahal den gutxien errepikatzea da nire nahia. Ohar modura egin dugun honekin, uste dut, irakurleak nire nahia eta asmoa erraz ulertuko dituela.

lauteria, Aratozte edo Aratoztiarekin heldu gara urteko hilabete eta egun jakinetan ospatzen ez diren jaietara, jaiegun aldakorretara. Berpizte Pazkoak agintzen baitu, udaberriko ilargi betearen menpe egonik. Esandakoak balio du Asentzio, maiatzeko Pazkoa, Pestaberri edo Korpus Eguna, etab.erako. Berpizte Pazkoa ez da behin ere martxoko 22aren aurretik izaten, eta esan izan da Pazko jaiari hiltzen dena zerura joaten dela, eta bere egunak Karnabalean amaitzen dituenak, infernua ezagutuko duela.



54. Juan Antonio Sarasola, 79 urte. Zumitzeta baserria. 1966ko apirilak 2.

Zer den eta nolakoa den guregana iritsi den lauteria, XIX. gizaldiko Ramon Artola Larrañaga olerkariak zerbait adierazi digu bertsoan:

Guziz egoki daki  
gezurrak kontatzen,  
egokiyago berriz  
dantzan ta kantatzen.  
Eta egiten beste  
norbaiten papera  
iruri arazten du  
bestea dala bera.

Ailegatzen denean  
lñautegi pesta  
echean asko aldiz  
ikusiko ez da.  
Denetan egiten du  
norbaiten papera  
jantzi mudatu asko  
oi ditu atera<sup>55</sup>.

lauteri festa mundutiarra dugu; baina ez solstizioen inguruan ospatzen direnak, erlijiotasunaz estalita heldu baizaizkigu.

Ezagutu –bizitu– edo berririk eman digun lñauteria, Aratozte edo Aratztia –gure probintzian hitz hauek, Karnabala izenarekin batera, arrunt eta orokorrenak ditugu– axolagabekeria, beste izana, itxura eta hizkera hartzea, maskaraz mozerrotzea, dantza eta pantomima xeble bezain farregarriez kalez-kale ibilitzea, musikaz alaituta, hori da ezagutzen ditugun lñauteriak.

Karnabalak ezinbestekoa du giza-askatasuna. Askatasuna eza eta lñauteria nekez uztartzen dira.

Aintzinako instituzioek ezer gutxi lagundu zuten lñauteriaren beharrezko izpirituari eusten. Bizitu dugun diktadura dela eta, nahikoa dugu 1937. urteko legea oroitzea. Beraz, lñauteriei buruz ikerketa sakona egiteko, derri gorrezkoa dugu garaian garaiko jarrera jakitea.

Nekazal herrietako lñauteriak oso gutxi du hartzekoa. *Carnaval en Alava* nire liburuari egindako sarreran esana dut Aratozte honek bere izaeran duen arnasa nabari zaiola. Herriaren izaera berean sortu eta kanpora azaldu, Panpinak antolatzea, keinuak, mozerrotzea, etab. behin baino gehiagotan eguneroko bizimoduaren ispilu agertzen eta bizitzen dira.

Herri handietako lñauteria harzailea da. Bereganatu egiten ditu berri arrotzak, festa bihurtzeko modukoak baldin badira. lñauteri hau etengabeko aldakuntzan sarturik dago.

---

55. Ramon Artola: Erriko seme iruchulotarra. *Euskal-Erria*. VIII Alea, 1883 urtea, 163/164 orr.

## Urtaroa

Īñauteriak garizuman sartu aurreko hiru egunetan egiten diren ospakizunak ditugu, gehienbat, batez ere, gure probintziari begira.

Orain dela urte batzu arte, baraua hasi aurreko tripafesta antzera iritsi zaizkigu. Īñauteriak *Neguko Festa* barnean ospatzen ditugu eta kristautasunarekin zerikusia dutela heldu dira guregana. Guzti hau gauza jakina da.

Laugarren mendean, Paziano donearen hitzak entzun ziren Bartzelonan Īñauteriaren aurka. Eta ez zen ekintza isolatua. Erdi Aro Garaiko elizgizonak ere mintzatu ziren, behin eta berriz, aurpegia estaltzearen aurka.

Baina, esan dudanez, lautea ospatzea ez da garizuma aurreko azken hiru egunetakoa bakarrik. Eta ez da herri guztietan egun berberetan izaten ere. Neronek ezagutu ditut Intza herrixkan ioteak edo karnabalak urtarrilaren 6an. Araitz bailarako herrixkako ioteetan, beste herri askoren modura, antzar-jokua egiten zuten, aintzinako ohiturari jarraituz.

## Jai izen batzu

laute jaien izenek badute beren aberastasuna, eta ez txikia. Adibidez, ikus dezagun nola ezagutu izan diren gure herrietan: *Īñauteriak*; Abaltzisketa, Albiztur, Berastegi, Berrobi, Elduain, Idiazabal, Lasarte, Lizartza, Tolosa, Zerain, etab. *Īñautegik*; Ormaiztegi. *Īñutik*; Aiako Laurgain auzoan. *Aratoziak*; Bergara. *Aratozteak*; Antzuola. *Aratuzteak*; Eibar. Eta *Aratisteak*, Oñatiko Zubillaga auzoan.

Jabetzen naiz izen zerrenda hau aspergarri xamarra suerta daitekeela; honela bada, arloa zerbait laburtuta jarraituko dugu. Beste aldetik, inork interesik balu, *Euskal Lexiko Etnografikoa* nire lana oroitaraziko nioke.

## Ostegun Gizen, Eguen Gizen, Eguen Zuri

Adierazi dut garizuma sartu aurreko egunetan ospatu izan direla Īñauteriak, beti ez bada ere, bai gehienetan. Arruntki, Quinquagesima igandearen aurreko ostegunean dute sarrera. Gipuzkoan, Ostegun hau *Eguen Gizen*, *Eguen Zuri* eta *Ostegun Gizen* izenez ezagutu izan dugu bereziki. Osteguna Ataunen *Otsabilko Eguna* izaten zen, eta eguneko puska-biltzean abestu ohi zuten, Jose Migel Barandiarani irakurri diodanez:

Otsabilko, otsabilko  
Ni basoa jun da  
Otso aundi bat ekarriko, ekarriko.  
Nei lukainka mutur bat  
Emate'ez diñai,  
Tripatik aurrea  
Burruntzie sartuko, sartuko.

Oroituko dugu Ataungo *Otsabilko eskean* esandakoak baduela antzik neronek Mutilon jasotakoarekin, eta otsailaren 2an herriko puska-biltzean abesten zutenarekin, ikusi dugun bezala.

Quinquagesima aurreko osteguna, Eskoriatzan *Urdelardero Eguna* da. Egunean, neska eta mutil kozkorak eskean atera izan dira, bakoitzak bere *zirixarekin*, emandako janariak sartzeko. Nire berriemaileak amona bati entzun zionez, honela esanez eskatzen zuten etxerik-etxe:

Urdelardero,  
urdaixa jan da,  
garbatu (garbaixa) gero.  
Hor errekan harri bat  
horren gainian txori bat,  
hor goixen iturri bat  
ura pil-pil etorri.  
Etxekoandre zabala  
etxe oneko alaba.

Nire berriemaileak Urdelardero Egunean ezagutu duen abestitza da hau:

Urdelardero, urdelardero  
Urdeixa jan da bazkarixa gero.  
Hor goixen itxurri bat  
haren gainien txori bat  
ura pil-pil etorri.  
Etxekoandre zabala  
Etxe oneko alaba.

Eskoriatzako Marin auzoan esan ohi zuten:

Etorri da eguna  
Guk deseatzten duguna,  
Gaurko egunez pentsatzen  
urte guztian nekatzen,  
Urdeilardero, Urdeilardero  
Urdeixa jan da baskaixa gero,  
piperra eta espeziak  
Euskalherritik ekarriak.

Etxeko jaunak eman badigu  
guk koplatzeko lizentzia,  
lizentzia hori badugu  
guk koplaturiko dugu.

Jaunak doan zaldia  
urrak silian azpian,  
atia dago leizarrez  
ate burua zidarrez,  
etxe honetako nagusi jaunak  
gorriz du bizarrez  
eta zidar zuriko ezpata,

beori bezin gizon presturik  
herri honetan ez dala.  
Etxekoandre noblia  
giltza haundien jabia  
giltza haundia hartu ezeze  
egizu egiperia  
egiperia egiterako  
nun duzu zure paria  
esku batian urdia  
bestean pare lukenkia  
horiek guztiek gutxi eretxita  
bost ogerleko mandia.

Elizan dago liburu  
uxoak haren inguru  
etxe oneko ume guztiak  
paraisu aingeru.  
Artuan dago loria  
puntaran dauko hazia  
etxekoandria etorri zaigu,  
limosna honeri.  
Agurrikan ez dugu  
eta agur ikusi artian.

Egun berean, herriko Bolibar auzoan abestu izan dute:

Bihar dugula ume guztiok  
Gure Jueves de Lardero,  
honelako egun ederrik  
ez dugu ez egunero

(bi aldiz, aurrena kopleluak eta gero taldeak)

Etxe hontako etxekoandria  
... (izena)... dezu izena  
andreguztien artian zera  
larrosarik ederrena

(bi aldiz, aurrena kopleluak eta gero taldeak)

Hai ze hegazti aundi eta eder  
etxe hontako oiloak  
egunero egiten dituzte  
libra terdiko arrautzak

(bi aldiz, aurrena kopleluak eta gero taldeak)

Etxe hontan hil omen dute  
txarria haundia ta sendoa,  
gero pixuan izan zituen  
ogeita zazpi arrua.

(bi aldiz, aurrena kopleluak eta gero taldeak)

Eskerrikasko, asko, asko,  
etxeoandria,  
Jaunak eman deizula  
zeruan pakia<sup>56</sup>.

### **Iñauterietako egun-izenak**

Quinquagesima igandeak eta ondorengo astelehen eta astearteak badi-tuzte beren izen bereziak. Lehenago ohartutakoa baieztatuz, laburki aipatuko ditugu izen batzu, batez ere, *Zaldunita*, *Astelenita* eta *Asteartita*.

*Zaldunita* (Igandea); *Astelenita* (Astelehena) eta *Asteartita* (Asteartea): Albiztur, Abaltzisketa, Berrobi, Elduain, Larraul, Tolosa, etab. *Zalduiñati Eguna*, *Asteleniñati* eta *Asteartiñati*: Zerain. *Zalduniota*, *Asteleniota* eta *Astearteñota*: Berastegi. *Domekei Karnabal*, *Asteleniñabete* eta *Asteartiñabete*: Idiazabalgo Urtsuaran auzoan. Aiako Altzola auzoan: *Igande Iñuti*, *Astelen Iñuti* eta *Astearte Iñuti*. Karnabal asteari, auzo honetan *Iñuti Astia* deitzen zioten. Jarraituko genuke, baina nahikoa dela uste dugu.

Aiako artzai bat *Karnabal Igandean* ardizain ibili ondoren, iluntzean etxeratu zenerako andreak sardina zaharra jarri omen zion meriendatzeko. Orduan, gizonak esan omen zion:

“Gaur Zaldunitaren eguna eta sardin zarraren usaia, korputzarentzat probeturik ez eta animarentzat etsaia. Ezta onela oitutakoa “Izubelako” (bere base-riaren izena) artzaia”<sup>57</sup>.

### **Maskara**

Adieraziko dut aurpegi-estalkia edo maskara ez dela karnabaletakoa bakarrik izan. Oiartzunen dugu xehetasunik berezienak agertzen dituen lekua. Serapio Mujikak dioenez, San Juan egunez elizako oparitakoan biltzen zena, maskaradunen artean banatzen zuten<sup>58</sup>. Baina Iñauteriarekin batera-tua heldu zaigu maskara gizaldietan zehar.

Maskara jarri eta mozorroa zer den eta nolakoa azaldu. Aurpegi-estalkia-ekin urte guztian daraman maskara kendu. Mozorrotu, norbera den bezala azaltzeko, bere barneko egia, bere benetako izatea agertzeko.

Ezagutzen dut 1565. urteko Errege agindua, besteak beste, maskarak erbestetik ekartzea debekatzen duena.

---

56. Eskoriatza: Isabel Guridi Biain, 40 urte. 1982ko uztailak 11. Egun Eskoriatzan ospatzen da Urdelardero eguna.

57. Aia: Juan Aranberri Azkue, 69 urte. Erreista baserria. 1991ko urriak 6.

58. Serapio Mujika: “Antiguas costumbres vascas. Las máscaras”. *Euskalerrriaren alde*, IV. urtea, 78. zenb, 165/168 orr.



Berrito ere zeregin-trukea (oraingoan gizonetakoak emakumez jantziriki), ihauteri ospakizumen ohizko berzilatsumu. Donostia, 1922.



Donostiako ihauterren antzinako argazkia (1922).





Balio dokumental haundiko argazki zaharra, 1925ean Konstituzioiko Plazan kalderero konpartsa bat erakusten diguna.

## **Maskaradunen izen batzu**

Iñauteri edo Karnabal jantziaz edo maskaraz ibili ohi direnek, izen zerrenda aberatsa izan dute.

*Mozorrotuak, txantxoak, txatarrak, txatxuak*, etab. luzea. Eta hemen ukitu dugu hizkuntzarekin zerikusia duen gai garrantzitsua. Ohar gaitezen gauzaren bat ezkutatzeak, ohitura galtzeak, berarekin dakarrela hitz mordoa betirako ahaztea.

Burdinolak ezkutatatu ziren, baita beraiekin lan-tresnen izenak ere. Lanabes batzu baztertu dira, eta hauekin batera baita izen mordoa.

Iñauterierekin beste horrenbeste gertatu da. Jaiak galdu badira, beraiekin harremanak zituzten izen bereziak ere bide bera jarraitu dute. Hitz gutxitan esateko, gauza edo ohitura baten galtzeak berarekin darama hizkuntza txirotzea.

## **Puska-biltzea**

Herri askotako Gabon edo *Olentzaro* eta Santa Agedatako ohitura zaharra, baita *Karnabal* edo *txantxo* eskea, herrixketako ohitura legea.

Baina eskeak, funtsean, berdinak izan arren, lauterietakoak badu bere berezitasuna, beste puska-biltzeek ez dutena.

lauterietako ibilaldian, soinujoleak hurbil, mozorrotuak eta aurpegi-estaliak taldeka ikusiko ditugu, hemen jauzi eta han irrintzi, atsedetik gabe, iska-mil osoan ibiliaz, benetako zalapartan, doluko ate ingurura heldu arte. Hemen isiltasuna da nagusi, txantxoak txapela kendu, burua zertxobait makurtu eta ohiturazko errezoa egin, dantza saioaren ordez.

lauteri batzuren berri ematean, bide batez, puska-biltzea aipatuko dugu. Baina jarraian emango dizuet Albiztur eta Urkizuko *txantxo eskearen* berri, nik entzutea izan dudana bezala.

Nire berriemaileak gogoan du orain dela hirurogeita bost urtetako *txantxo eskea*, Albiztur eta Urkizuko gazteek egin. Gazte taldean bat baino gehiago izaten zen morroia, urte haietan eta aurrerago morrontza gauza arrunta baitzen gure baserrietan.

Taldeak soinujolea eramaten zuen eta gazte batek adarra joaz adierazten zuen lauterietako *txantxo eskearen* ibilaldia, bereziki baserri inguruetara hurbiltzen zirenean. Doluko etxe atarian, isildu, errezatu eta, gainerako baserri gehienetan bezala, oparia hartu.

Nire berriemailea, Jose Telleria, oroitzen da puska-biltze honetan ibiltzeko, galtza zuriak eta brusa argia jazten zituztela; oinetan galtzerdi arruntak eta alpargata zuriak, zinta gorriarekin, edo zapatak, eguraldiaren arabera. Gure ustez, txapela ere izango zuten.

Baserri gehienetan, oilaskoa ematen zieten, eta jasotzeko, bi txantxoren artean haga eramaten zuten. Hegaztiak hagatik zintzilikatzen zituzten hankeetatik.

*Txantxo eskea Zaldunita egunean, goiz-arratsaldez, egiten zuten eta oilaskoek eltzean izaten zuten amaiera. Ohartuko dugu Albiztur eta Urkizuko mozorrotuak txantxo izenez ezagutu izan direla<sup>59</sup>.*

## Dantza

Kultur kontuetan, dantza izango dugu mendeetan zehar gutxien aldatu den gauza. Hau ohartu ondoren, esango dugu benetan zaila dela lauteria, Aratozte, Aratistea edo Aratuztea dantzarik gabe ulertzea. Bai puska-biltzearen ibilia alaitzen, bai kale eta plazan festa giroa sortzen eta, berdin-berdin, Karnabala ospatzen duen ohizko etxean, festarako biltoki bihurtua, dantza faltarik ez da izango; dantza lekuko izango da.



Bat baino gehiago mintzatu da euskotarren dantzarako zaletasunaz, eta hau garbi aski azaltzen zaigu erbestetik hurbildu zaizkigun adierazpenetan: Voltaire, W. F. Humboldt, etab.

Dantzarako, danborra eta txistua, arruntak izan ditugu gure artean. Behin baino gehiagotan eman dugu ezagutzera danborreroa eta ikaslearen izenean sinatutako ituna. Maisuak, zapatagilea aldi berean, Hondarribian zituen bizilekua eta ogibidea. Ituna, 1799. urtekoa da.

---

59. Albiztur: Jose Telleria Eizmendi, 83 urte. Artutxa baserria. 1992ko uztailek 22.



Gure paperetan, badugu Andoainen bizi zen txistulariak Anoetako herriarekin egindako ituna. 1734. urtekoa, zehatz-mehatz agertzen ditu txistulariaren betebeharrak.

Dantzen inguruan, gure Biltzar Nagusiek hartu zituzten erabakiak. Adibidez, garai jakin bati mugatuta, 1713. urtetik 1768 arte, hamasei izan ziren erabakiak.

Aztera gaitezen XVII. mendera eta lauteriaren haria hartu. Guiche-ko Konteak 1671. urtean zioenez, lehen ere idatzia dut, *Euskalerriko lauterietan ez dago dantzan egin gabe egotarik*<sup>60</sup>.

Euskal dantzei buruz Jovellanos-ek idatzitakoa irakurri ondoren, Juan Inazio Iztueta koreografoak honela zioen:

Noraino jasoko ote zituzten, euskoak, norbere jaioterriko Patroien egunetan... da lauteriz zekizkitenak, hain bikainak, ikusi izan balitu...

Aintzinan, Lizartzan ospatzen ziren lauteriak oroituaz, gogora ditzagun festa hauen izen oneko dantzak, Lagun Artea elkarteak antolatutakoak: *Paseo-dantza; Lehenengoa; Bigarrena; Seigarrena; Ostiko-dantza; Etxe-dantza; Lau ostiko-dantza; Makil-dantza; Bloke-dantza eta Paseo-dantza*<sup>61</sup>.

---

60. Francisco Arrarás Soto: "Danzas de Navarra". *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, hirugarren urtea, 8. zenb. 1971ko maiatza-abuztua, 172. orr.

61. Lizartzako Iñauteriak, egun galduak, ikus Juan Garmendia Larrañaga: *Iñauteria. El Carnaval Vasco*. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Lehen argitalpena. 1973. urtea. 153/155 orr.

Abaltzisketako *txanto dantzak* eta Amezketako *talai dantzak* bizirik jarraitzen dute. Amezketakoak puska-biltzen baserrietako ateetara hurbiltzen ikusten zituztenean, honela esaten omen zuen bertako baserritarrak: *Karnabaletako talai emen dek*<sup>62</sup>.

## Jan-edanak

Tripa-festa sendo uztartuta dugu Karnabalarekin, aintzina- aintzinatik. Hitako Artziprestearen *De la pelea que tuvo don Carnal con doña Cuaresma* liburutik aukeratuko ditugu bertsoak:

Oso ondo jarrita zegoan laute jauna ongi ornitutako maiean, oiaulki zabalaren gaiñean; koblariak, bere aurrean, jaun agurgarriari dagokion bezala; jaki guztietatik bete-betea.  
Gizarajoa geiegi janda zegoalarik eta, aragi askorekin ardo asko edanda, puztua zegoan, erdi-lo; zabaldu guztian guda-deiaren oiua entzuten da.

*laute, laute, zingar t'arautze*, edo antzeko zerbait egiten dute deiadar behin eta berriz lauteetako puska-biltzean.

Nekazal etxeetan jateko duten ohitura, negu luzean batez ere, azaltzen da lauterietako otorduetan. Zerrikia ugari. Zerri-hankak, zerri-muturrak eta belarriak, azkenburu edo postre modura torradak dituztelarik. Torradak jateko ohitura, beste ohitura askoren antzera, Euskalerritik kanpoko ere bada.

Gipuzkoan, Karnabaletan torradak jateko ohitura itsas ertzeko eta barrualdeko herrietakoa da: Astigarraga, Ezkio, Hondarribia, Tolosa, Ormaiztegi, Urnieta, Zumaia, etab. Hitz gutxitan, esan dezakegu torrada jatea Karnabaletako ohitura zabala dela.

Lerro gutxitan baieztatuko dugu lauterietako otorduei buruz jakinerazi duguna.

Idiazabalgo Urtsuaran auzoko gazteak mozorrotzen ziren lauterietan, *Domekei Karnabal, Asteleniñabete* eta *Asteartiñabete* egunez.

lauterietan puska-biltze ohitura/legea egiten zuten, saritzat zerri hanka eta belarriak jasotzen zutelarik. Gero, ohizko afarian, irin eta arrautzetan bilduta jaten zituzten, eta postretarako torradak eta aiezko pastelak. Mahaian ez zuten izaten ardo eta pattar faltarik.

Zerrikia aipatu dugu behin eta berriz, eta aurrera jarraitu baino lehen, bi hitzetan gogoratuko dut zerri-hiltzea, gure baserrietan neguko eginkizun zabaldua.

---

62. Abaltzisketako Iñauteriei buruz zerbait idatzia dut nire *Iñauteria. El Carnaval Vasco* liburuan.

Zerriaren zatiak auzokoei opari modura ematen zitzaizkien, elkartea bizitu edo indartuaz.

Zenbait auzotan, zerri-hiltzeak berarekin dakar ondorengo festa-afaria, etxe bakoitzetik lagun bat mahaian eseriaz. Honela esan zidaten Donamariako Arze auzoan<sup>63</sup>.

## **Sua**

Esana dugu gizonak ospakizun garrantzitsuenetan berarekin izan duela sua. Gogora dezagun San Juan sua, udako solstizioan, *Olentzaro* suaren inguruko ibilaldiak eta Urte Zaharreko agurra, suaz egin ohi dena.

lauterietan ere, sua lekuko izan da. Adibidez, 1840. urteko lauterietan, Tolosan su bat baino gehiago piztu zen, eta badakigu ohitura bera beste herri batzutan ere izan zela. Horrela bada, aintzinako Karnabalak sua hurbil xamarean izan du, aspalditik ahaztuta badago ere.

## **Muñeko edo panpin-hiltzeak**

lauteri ospakizunak amaitzeko, panpinei tiroz edo erreta bukaera emateko ohitura izan da herri batzutan.

Ohiturak bizirik iraun du lauteri jakinetan; baina Gipuzkoan ez dugu berri haundirik pantomima mota honi buruz.

## **Herrisketako lñauteria**

lauteriarri zatika eman diogu begiradaxoa; orain ikus dezagun osoan, gorputza osatuz, aintzinako Karnabalen berriak neronek entzun nituen bezala, lekuan lekukoari, ospakizun hauek kondairara igarotako urteetan.

Atal honen hasieran, lauteriei buruz egin ditugun gogorapenak gehituko ditugu, nekazari herri txikietako ohituren aldaketak astiro astiro eman izan direla esateko. Beraz, ez da zaila entzutea: *Hau beti honela izan da*, orain bizimodua beste modu batetara mugitzen bada ere.

Herri hauetan ere, nabari den gauza da gizartearen elkartasuna. lauteria ospatzeko behar den elkartasun giroa. Badakigu bakardadean ere Karnabala egiten dela; baina, festaren zatirik garrantzitsuena elkartean aurkitzen da. Begiragune hauek, batez ere herrisketan geldiro emandako aldaketak, ageritzen dira interesgarri niretzat. Sar gaitezen, bada, lauteri hauetan:

---

63. Donamaria (Arze auzoa): Konzezion Amigarena Agesta, 25 urte, eta Sandalio Amigarena Irisarri, 70 urte. Etxeberria etxea. 1989ko abuztuak 20.

## Oñatiko Zubillaga auzoa

Auzo honetako *Ahatistek* edo *Aratistek*, *Eguen Gordon* zuten hasiera.

*Maskarak*, *Aratiste Egunean* eta *Martise Aratiste* arratsaldean ateratzen ziren. Maskara hauek ez zuten eskean ibiltzeko ohiturarik; baina makilaren muturrean jarritako puxikaz, bidean harrapatzen zuten guztia jotzen zuten.

Aratistek girotzeko filarmonika soinua izaten zuten. *Maskarek*, brusa jantzita, kartoizko aurpegi-estalki edo maskara eramaten zuten, edota aurpegia margotuta. Emakume ezkondua ez zen mozorrotzen, eta neskek, aurpegia agirian, Karnabaletan zeudela adierazteko moduko jantziak soinean, gehiengotan gona gorria erakutsiaz.

Aramaitakua (Abemariak) entzutearekin batera, maskarak eta Aratiste kutsua zuen guztia kaletik izkutatu egiten ziren.

*Eguen Gordo*, *Aratiste Eguna* eta *Martisen Aratiste* arratsaldean txorizoa eta torradak jateko ohitura izaten zen.

*Aratiste Egunean* eta *Martisen Aratistean* zerri-hankak eta zerri-muturrak izaten zituzten bazkaltzeko, azkenburu edo postretarako, torradak eta peila edo moiloa<sup>64</sup>.

## Idiazabal

Nire berriemaileak ezagutu zuenez, Idiazabalgo lauteriak Quinquagesimaren hurrengo asteartez, *Astearteiñate* egunez ospatzen ziren.

Egunean, *mozorro zuriak* eta *mozorro zatarrak* ateratzen ziren talde banatan, eta egun osoa eskean ematen zuten etxez-etxe eta baserriz-baserrri, ate aurrean librean edo sueltoan dantza saioa eginez.

*Mozorro zuriak* apain eta dotore jantzita. Buruan txapel gorria, lepoan kolore bereko painelua korbata modura korapilatua, gerrikoa ere gorria, alpargata zuriak lokarri gorriekin, alkandora eta galtza zuriak. Galtzetatik zintzarri txiki edo kaskabiloak josita zintzilikatzen zituzten.

*Mozorro zatarrak* emakumez jantzita, buruko painelua, brusa, korpinoa, gona, mantarrak eta abarkak.

Baina zatar izen honek ez zuen itsusia esan nahi. *Mozorro zatar* haiek makila zeramaten eskuan eta makilaren muturrean trapu zaharrak. Trapu zahar hauek, zatarra izenekoak, ematen zieten dantzari *mozorro zatarra* izen hori.

---

64. Oñati (Zubillaga auzoa): Federico Mendizabal Etxeberria, 90 urte. 1980ko urtarrilak 8.

Talde bakoitza bere aldetik ibiltzen zen, soinu-jolearekin batera; gazteren bat saskia edo otarra eramateaz arduratzen zen, emandako arrautze eta txorizoak jasotzeko.

Eskean bildutakoarekin *mozorro zuriak* eta *mozorro zatarrak* afaltzera bilzen ziren, gehienetan talde bakoitza bere aldetik.

Ondoren, gauerdira arte lauteriak plazan jarraitzen zuen. Hemen elkarrekin dantza egiten zuten *mozorro zatarrak* eta *mozorro zuriek*<sup>65</sup>.

## Mutiloa

Mutiloko iauteriak Ostegun Gizenez zuen bere hasiera, beste herri askoren antzera.

Ondoren *Karnabal Egunean* (Igandoa), *Asteleniñate* eta *Astearteiñatez* jarraitzen zuten.

Mutiloko gazteek *mozorroto* egiten ziren, eta *mozorro* hauek ardilarruz estalita ibiltzen ziren, bihurrikeriak egiten ahal zuten guztietan.

*Astearteiñatez mozorro zuriak*, ia denak Idiazabalgoak, iristen ziren, esan dugun bezala jantzita. *Mozorro zuriak*, denak mutil gazteak, hemen ere eskeari ekiten zioten, eta diruz, txorizo eta arrautzez saritzen zituzten. Idiazabalgo gazte hauek, filarmonika soinuaz sueltoan edo librean dantza eginez, festa giroa indartzen zuten, eta beraien inguruan *mozorroak* mugitzen zirelarik, Mutiloa guztia lauteri bihurtzen zuten. *Mozorro zuriak* Errepublika garain izkutatatu ziren<sup>66</sup>.

## Legazpiko Telleriarte auzoa

Legazpiko Telleriarte auzoko Karnabalek Ostegun Gizenez zuten hasiera. Karnabaletan, ahal zuten jantzirik farregarrienak eta xeblereenak jantzita, aurregia ikatzez zikinduta, ateratzen ziren eskean *Katamalo* izenez ezagututakoak, *Karnabal saria* delakoa eginez, musukitarra eta panderoa lagun. Dirua, aza eta lukainka ematen zizkioten.

Gero, zerri-hankak edo *txarrankak* afaltzen zituzten, postretarako torradekin batera; ohitura honek jarraitzen du egun ere.

*Karnabal Igañdez* iristen ziren Legazpiko kaletarrak eta Zegamako mutil taldeak. Bertako *Katamaloak*, Telleriarte auzokoak, berriro erabiltzen ziren

---

65. Idiazabal: Manuel Katarain Iparragirre, 90 urte. Aritzeder baserria. 1980ko maiatzak 4.

66. Mutiloa: Mariano Iparragirre Apaolaza, 86 urte. Ugalde baserria. 1980ko otsailak 11.



Karnabal sarian, dirua eta gaiak biltzen, eta afal ondoren ekiten zioten dantza saioari, trikitixaz lagunduta.

Musika amaitzerakoan, *neska laguntzea* zetorren, mutilak neska etxeraino laguntzen zuelarik.

Astearte edo *Asteartiñabete* egunez berriro *Katamaloak* (mozorrotoak) plazaratzen ziren eta *Karnabal Igandeko* festa berri<sup>67</sup>.

### **Hiri haundietako lauteria edo kaletarra**

Gure iauteriaren inguruko ibilalditxoan, utz ditzagun auzo eta herri koxkorretako ospakizunak, gure Herriaren aintzinara erraz garamatzatenak, eta kalera gaitezen, begiraldi oso laburra emanez, hiri-argiak ematen duen itzalaren babesean heldu zaizkigun Karnabaletara.

Irratia entzunez eta telebista ikusiz, egunkariak irakurri eta iragarkiak eskuz-esku ibiliz, hiri handietako lauteri hau aski ezaguna gertatzen zaigu. lauteri honetaz behin eta berriz errepikatzen dira gauza berdinak edo antzekoak; beraz, gure betebeharra begiralditxora mugatzera behartzen gaitu aurreko guztiak.



---

67. Legazpi (Telleriarte auzoa): Isidro Olabide, 75 urte. Mirandaola Jauregia. 1974ko martxoak 10.

Kaletarren iaunteria edo Aratozteak, gehienbat landuz eratzen den jaiak, ahaztu xamarra eta itzalita egon da azken urteak arte, bolada luzean, orokorrean ikusita. Baina Aratozteak lehendik zekarren hilgaitza berarekin. Hiri batetan baino gehiagoetan arrastaka eta ezinean bizi zen. Eliz gizonak eta agintariak saiatzeko ziren, bakoitza bere aldetik, festa hauen hegak murrizten. Esan behar da laute giroa, kale giroan batez ere, itzaltzen eta hozten zihola urtetik urtera, ospakizun hau 1937. urtean debekatzen zuten aginduaren aurretik. Gauzak honela ziren, leku gehienetan behintzat.

1936. urtean, Donostiako Karnabalei buruz, idatzia da guk itzultitako hau:

la ez dugu mozorrotutakorik ikusi kaleetan, haurrak ere ez dira, noski, mozorrotu aurten; alderdi zaharrea bakarrik ikusi ahal izan ditugu hiru edo lau gizarzarpail eta beste bizpahiru maribargasta mutil itxurazkoak. Alabaina, urte osoan aurpegi estalidunak izanik, eta beraz, urte guztia Karnabal, askorentzat laute jaiak ospatzeak ez du zentzurik izan ere<sup>68</sup>.

Antzeko zerbait irakurri diogu Emilio Navas-i, *Irun en el s. XX (1900-1936)* alean, 1900. urteko iaunteriei buruz idazten duenean, itzulpena eginez: Iaunteriak lur jota egon ziren:

Ez zen ikusi aintzakotzat hartzeko zomorrotutako maskararik<sup>69</sup>.

Hitz gutxitan esateko, urrats guztiak araupean dituela mugitzen den gizartean, Karnabalar berea duen beharrezko arnasa kentzen zaio eta ito egiten da, hil egiten da.

### **Hondarribiatik Tolosara, Donostiatik barrena**

Irun aipatu dugu, eta Irundik gertu dago Hondarribia; arrantzale munduan sartzen gara, eta inguru honetan iaunteriei buruz entzundako berriak emango ditut jarraian.

Azken urteak arte, Hondarribiako iaunteriari Karnabal izenez arrunt deitzen zioten.

Karnabalaren hasiera *Ostegun Gizen* edo *Gizen Egunean* izaten zen, eta *Gizen Egunean* txorizoa jateko ohitura izaten zuten.

Goizetik, gizon-emakumeak, gazte eta zaharrak, *mozorrotu* egiten ziren, *karnabalez* jantzi eta mozorro hauek *mairu* izena izaten zuten.

---

68. *La Constancia* (Donostia). 1936ko otsailak 25.

69. Emilio Navas: *Irún en el siglo XX (1900-1936)*. Argitalpena eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. Donostia, 1977, 357. orr.



*Mairuak* aurpegia estalita kaleratzen ziren, ahal zuten arroparik fargarrienarekin, askotan gizonak emakume jantziaz eta emakumeak gizon itxuraz, norbere buruaren ezaugarririk gabe. *Mairu* bat zein zen jakiten zenean, umeez atzetik segitzen zuten, deiadar eginez: *Mairu ezaguuuna...*

Larunbat ilunabarrean Karnabala berriro bizitzen zen, kalean *mairuak* azaltzen zirelarik.

Karnabal Igandean, *mairuak* kale eta plaza guztietan mugitzen ziren, batetik bestera atsedetik hartu gabe.

Egun honetako jolas berezia *piko-piko* delakoa zen (beste herrietako Karnabaletan izen desberdinez ezaguna den jolasa). *Piko-piko* jokurako *mairuek* kainabera puska bat hartu, muturrean soka lotu eta sokatik piku lehorra zintzilikatzen zuten. Umeez ahoan hartu behar zuten pikua, eta zailago egiteko, *mairuek* astindu egiten zuten kainabera.

Baina arrantzale-herrian aurkitzen gara eta, Karnabal giroan sartuta, ez da harritzekoa pikua barnean amua ere jartzea.

Hemen eman ditugun Karnabalak 1936ko gudak galdu zituen.

Egun, beste herri askotan bezala, Hondarribian ere lauteria ospatzen da<sup>70</sup>.

Donostiako lauteriaren azalpen huts edo kaxkar xamarra oroitu dugu, baina adierazi behar da donostiarrek ez dutela beti honelako kemen exkaxa izan jaia ospatzeko.

---

70. Hondarribia: Juan Larrarte Lekuona, 78 urte. 1992ko urriaren 21. Jose Etxebeste Olaskoaga, 73 urte. Arrantzale auzoan bizi dena; Anizeto Sagarzazu Iriarte, 72 urte. Tximista-enea etxea, eta Sinforiano Zozaia Otxoa, 62 urte. 1992ko urriak 27.

Donostiako kale zahar eta estuek, biziaren bihotza Konstituzio Plazan, bizitu zituzten lauteri alai eta herrikoiak. Donostiarrek, beste herrien antzera, izan zuten lauterietarako zaletasunik, garaian garaikoa.

1813. urtean sute handia jasan zuen hiriak, denok ondo dakigunez, eta Jose Bizente Echagarayek idatzi zuen:

Donostiar tristeak  
zer egingo degu!  
nola negu gogorra  
igaroko degu!

Ez erri eta ez etxe  
ezta ere erroparik  
jatekoa garesti  
ta ez izan dirurik<sup>71</sup>.

Hurrengo urtean, 1814.ean, sute beldurgarri hark herri osoa ia kixkalita zuelarik, lauteri hirugarrenez, danbolinez Ildiyarena joaz, soka-muturra kale-ratu omen zen.

1817. urtean Donostiako kaleetan *Arzaigokia* izena zeraman zamo-taldea ikusi zen, Echagaray-ren olerkia abestuz:

#### *Martxa.*

Guazen arzayak, guazen andreak  
Ekus dezagun erriya,  
Auxe bera da billatzen degun  
Erretako Donostiya.

¡Au jende ederra eta alegria!  
¡Au janziyaren garbiya!  
Ezta ezagun mayorazkua  
Ezta ere nekazariya.

#### *Zortzikoa*

Gure begiyak daude  
Ezin asperturik  
Ekusten naigabeak  
Zaudetela azturik:  
Kale berri zabalak  
Zuzen idikirik  
Eta gañea asmoak  
Aurrerako arturik.

---

71. Jose Bizente Echagaray: *Festara*. Auspoa Liburutegia 35/36. 1964. urtea, 25. orr.

Konseju-echea ta  
Plaza egin ondoan  
Fama zabalduko da  
Munduban behingoan:  
Ez-leneko denboran  
Eta oraingoan  
Onelako erririk  
Eztala gogoan<sup>72</sup>.

Donostiako lauteria nolakoa zen –eta ikerlari bat baino gehiago saiatu da- egunkariei ihes egiten dieten garaietan edo aldegiten dieten berriak jakiteko interesgarria da aldizkariak eta olerki- bertsoak irakurtzea. Hartara jakin dezakegu lauterietan mozorrotzeak –oroit dezagun *Guziz egoki daki (...), iruri arazten du bestea dala bera-*, zamo-taldeak, dantzaldiak eta zezenketak ugari izaten zirela. Ahaztu gabe garaiko gizartean gremioek izan zuten garrantzia, batez ere, lehengo mendearen azkenaldera arte, idatzietatik ateratako ondorioak:

Iñauteriyak Donostiyen  
Lenago eta orain

Urrena ezpatadantzari gozoak. Gero andik laister

(...)  
Zerbait geroago  
“Zapatari festa”,  
Pazia-gilleak  
“Turkiyakoak”.

“Langille maisubak”,  
zortzikoak eta  
“festari Okiñak  
Frantziyakoak”.

Berriz langilleak,  
arotz, perratzalle  
tornularia,  
arropa saltzalle,  
zapatagilleak  
galdarakiña ta  
chorrotzailliak<sup>73</sup>.

Egun, lauteriaren berpizte urteetan bizi gara, eta Donostiakoak, ezinbesteko ilunaldia igaro ondoren, berriro kaleratu dira.

---

72. Jose Bizente Echagaray: “Arzaigokia. Donostiyen otsaillaren amairu garren egunean milla zorzi eun da amazapi garren urtean”. *Euskal-Erria*. VIII. alea (1883ko aurreneko seihilabetea), 110/111 orr.

73. Bitoriano Iraola: “Iñauteriyak Donostiyen. Lenago eta orain”. *Euskal-Erria* - XII. alea (1885eko aurreneko seihilabetea), 151/153. orr.

Baina urteetan zehar Karnabaletako su-lamari itzali gabe eutsi diona Tolosa dugu, nire herria. Tolosako lauteriak heriotzarik ez du izan, eta berpizterik ez du ezagutu. lauteri honek *Ostegun Gizenez* du hasiera eta *Asteartitaz* amaitzen da.

Gogoratu izan ditut Iztuetak 1845. urtean, hil zen urte berean, Tolosako lauteriari eskeini zizkion bertsoak; egun oroituko dugu Emeterio Arrese nire herrikidearen olerkia. Lerro gutxitan Arresek agertzen digu lauteri honen barneko izatea, bere benetako arima:

Iñauteri egunez  
Tolosarren pozkai  
zorionean gatoz  
abesturik alai.

Ez gera gu zenbaitek  
uste bezin etsai,  
kalterik ez diogu  
iñori egin nai.

Zuek dezuten jayaz  
sorgiñak ere jai<sup>74</sup>.

Tolosako lauteria, zezenketak, goiz-arratsalde; nonnahi eta ustekabeen azaltzen dira zamo-taldeak; txantxoak, erestaldeak eta dantzak borobiltzen duten lauteria.

Zalantzarik gabe esan dezakegu Tolosako lauteriak izan zuela bere nekal-kutsua, bere garaiko kutsua, alegia. Baina herria haztearekin batera, bere inguruan beste giroa sortu zen, bere garai eta bizimoduko giroa hau ere. Mundu bat atzendu, ez ahaztu, eta beste jokabide bati jarraitu, beste ekintza bat indartuz. Hiri askotako gertakizuna.

Beste ikuspegiari helduta, ospakizuna funtsean ukitzen ez duena, ez da ahaztekoa Tolosa hazten doala, astiro baldin bada ere. Zezen Plaza, alderdi zaharretik at, mende honen hasierakoa dugu, eta lauterietako ibilbide berri edo berri xamarrek direnek, bere argi-alaitasun guztiekin, festa giroak eskatzen duen zahar-ilun kutsuaren gabezia nabaritzen dute.

Kale zabalean eresti doinua ahuldu, galdu, egiten da, eres-taldeak daraman alai-indarra txirotuaz.

Ez da nire eginbeharra lauteri honen egitaraua ematea; baina bai aipatu *Zaldunitako* goiz-diana Herriko Musika Bandak jotakoa, txantxoak behin eta berriz abesten duten nire adiskide izan zen Estanislao Urruzola *Uxolaren* hitz-abesti hau: *Jeiki jeiki oi ortatik, gaur tolosarrak lauteriak betil*,

---

74. Arrese'tar Emeteri: *Akelarre. Sorgin-eztayak. Txindor*. Donostiyan Leizaola'ren Irarkolan. 1925, 149 orr.

eta gogoratu *Asteartita* goizeko *Alborada*, herriko Txistulari Bandak jotzen duena.

Tolosan ospatzen ziren lauteriak gure egunetako eres-sorta ezagutu aurretik, eta ziur nago ospatuko liratekeela musika hau ahaztuta ere. Tolosako Karnabala egingo litzateke; baina ez egun herri honetan bizitzen den lauteri bera. lauteria bai, baina beste Karnabal bat.

lauterietako musikaren inguruan, Tolosan aipamenik merezi du Ramos Azkarate bertsolari-olerkariak. Bera dugu *Galtzaundi* ezagunaren sortzailea. Tolosako lauterietarako idatzi den olerkirik bereziena.

Neri deritzat Galtzaundi  
apellidua det Goñi,  
Aldasoro izen-goitiya  
Deitzen dirate neroni;  
iltzerikan ez nuben  
lenago pentsatzen  
bañan oraingotikan  
ez naiz eskapatzen,  
testamentu egitera  
nua ni lenbailen,  
nere parientiak  
lasatu ditezen  
Aitaren, Semiaren  
Espiritu Santuaren  
Jaun zerukuak lagun zaidala  
lan honetan neri arren;  
sentimendu bakarra dadukat barrenen,  
alaba ipurtaundiya  
utzitzia emen,  
orra neregatikan  
oyek nola dauden,  
Jaunak eraman nazala  
zerura lenbailen.

Ta Galtzaundi  
Ta Galkaundi,  
apellidua det Goñi<sup>75</sup>.

Ramos Azkarate Otegi Tolosan jaio zen 1847. urtean eta bertan hil 1904eko martxoaren 26an. Bera dela eta asko idatzi da, bera nor zen askotan aipatu dugu. Baina nor izan zen *Galtzaundi*? Bizitu al zen? Bizitutakoa da, bai, Ramos Azkarateren bertsoen bidez guregana iritsi den *Galtzaundi*. Ez da olerkariaren asmakizuna, benetako gizona baizik, gizarajo xamarra izan bazen ere.

---

75. Bertsoen ondoren, errepika hau ahapaldi bakoitzean berritzen da.

*Galtzaundi*, Santos Aldasoro Iriarte zen. Etxarri-Aranatzen jaioa, 1831, urtean. Ezkongaietan Tolosan zuen bizilekua eta bertara ezkondu ere, Fermina Lakuntza arbizuarrarekin, 1851. urtean, eta sei seme-alaba izan zituzten.

*Galtzaundi*, Azkarate bera bezala, zapataria genuen, eta Ramosek bezala Errukietxean amaitu zituen bere egunak, 1899ko urriaren 18an<sup>76</sup>.

Gizonarentzat lauteriak garrantzi haundiko jaiak direla ezin uka. Egun hauetan, lauteri egunetan, azaltzen baitugu zer garen. Nortasuna adierazteko ez baita *mozorrotu* edo *txantxo* modura jaztea baino gauza egokiagorik.

## **AIZARNAZABALEN, AMABIRJINA MARTXOKO**

Ofizialki amaitu arren, guk zenbait egunez luzatu egingo dugu negua.

Aizarnazabalen, beste herri batzuren antzera, *Amabirjina Martxoko egunez* festa egiten zuten.

*Martxoko Amabirjina egunean*, hilak 25, herriko usuario berezia zen eliz parrokira bezperetara joaten ziren guztiak gonbidatzea.

Gizonezkoei ardoa eta ogia, zimiterioan. Ardoa pitxarrekoa botilatik (bi litro t'erdikoa) ontzi edo basoetara hustuaz.



---

76. Berri hauek Tolosako Santa Maria eliz-parrokiko Artxibotik jaso ditugu.



Emakumezkoiei, berriz, txokolate katilukada boladuekin, platano tanke-rako azukariloak, *Etxeberri* izeneko tabernan.

Banaketa egiteaz arduratzen zirenak maiordomoak ziren, Herriak izendatutako hiru edo lau baserritar.

Festa giroko ospakizun hau gure azkeneko guda ondoren –1940. urtean-galdu zen<sup>77</sup>.

*Amabirjina Martxoko, neguari eman diok ostiko*<sup>78</sup> baina hau beti honela ez dela berehala adieraziko digu ondorengo ipuinak

### **Zozomikoteak edo Artzaitxoaren egunek**

Ipuin honen *zozomikoteak* izena arruntagoa da *Artzaitxoaren* egunek baino<sup>79</sup>.

*Zozomikoteen* kontakizuna gure mugarrietatik at ere ezaguna da, kultura ezberdinetan agertzen den ipuina dugu, adibidea, Greziakoan.

### **Zozomikote egunek, tristeak eta illunek**<sup>80</sup>

Gipuzkoako herrietan *zozomikoteak* edo *artzaitxoaren* egunek martxoko azken bi edo hiru egunetan eta apirileko aurreneko bi edo hirutan izaten dira, gure probintziari begiratuz, batez ere.

Artzainak *Martxoari* agindu zion bere artaldeko ardirik onena, eguraldi ona eginez jokatzeko bazuen. *Martxo*a jarri zen artzainaren nahira; baina hila-ren azken egunetara heldu zenean, artzainak, irri eginez, esan zion agindua ahazteko *Martxoari*:

Ai Martxo, Martxo!, ematen diat esker gaixto. Nere artaldean dan ardirik exkaxenak egiten dik errekari bi oinetan salto.

Orduan *Martxoak* artzainari honela egin zion aurre:

Ai Apiril, Apiril, bazeuzkat bi egun terdi, ik ekatzak beste bi egun terdi, orroko artzai orri kenduizkagun eun ardi eta bi aari.

---

77. Aizarnazabal: Isidro Etxeberria Aizarnazabal, 70 urte. Mirubia etxea. 1991ko urriak 12.

78. Berastegi: Amada Etxeberria Matxinea, 83 urte. Borda Txuri baserria. 1986ko apirilak 26.

79. Artzaitxoaren egunek izena Beasaingo Garin auzoan entzun nuen aurreneko aldiz. Berri-mailea: Jose Inazio Lasa Odriozola, 63 urte. Garin Arrese etxea, 1987ko urriak 20.

80. Azkarate: Pedro Migel Saralegi Irurtzun, 76 urte. 1978ko apirilak 22.

Artzainari ahari bat ez gainerako guztiak urak eraman zizkion; aharia bizkarrean hartu zuen, eta mugimendu zakarra eginda, adar batez begia atera zion. Artzaina artaldea eta begia galduta gelditu zen<sup>81</sup>.

Ipuin honetan ikus ditzakegu artzainaren harrokeria, elkorkeria eta hitz-jatea, eta *Martxoak* eta *Apirilak* emandako zigor gogorra hitza ez betetzeagatik.

*Zozomikoteak* edo *Artzaitxoaren* egunek igaro ondoren eguraldiak altxa egingo zuen eta udaberri itxura alaia hartu.

Eguraldi txar otzaren urren  
eldu da beste giroa,  
udaberriyak orain dakarren  
ernaro xamur gozoa.

(E. Arrese).

---

81. Beizama: Maria Juana Ibarbia Elustondo, 60 urte. Etxenagusi Azpikoa baserria. 1988ko martxoak 30. Antzeko ipuina herri bat baino gehiagoetan entzuna dut.